

## Herririk herri

Zornotzan gaur irekiko dute Osasun Zentroa, etengabeko arreta guneagaz; gainerako zerbitzu guztiak astelehenetik aurrera egongo dira martxan. > 8



**JAIAK!**

ELORRIO  
IZURTZA

Azken bi eguenetan, Durangon gertatutako eraso sexistak gaitzesteko elkarretaratze jendetsuak egin dituzte Andra Marian. Udalak kasu guztietan indarkeria matxistaren aurkako protokoloa aktibatu du. > 2

## 5 eraso sexista 10 egunean



**BELARDENDA**  
**NATURALKI**  
**EKODENDA**

Barrenkalea, 28 | 946 817 918 | [www.naturalkibelardenda.es](http://www.naturalkibelardenda.es)

### Elorrio > 4

Elorrioko Transportes Nanuk enpresa zarratu egingo dute

### Abadiño > 6

Eskalada-horma atondu du udalak Traña-Matienan

### Durango > 2

ETSk 7 milioi bideratu ditu geltoki zaharreko obretara

### Otxandio > 9

Lanak ia amaituta hasiko dituzte klaseak eskolan



## Herririk herri

# 10 egunean 5 eraso sexista salatu dituzte Durangon

Abuztuaren 21etik 31ra bitartean, bost emakumek salaketak ipini dituzte



Joan zen egunean kontzentrazioa burutu zuten Andra Marian lehen erasoaren aurka egiteko.

**DURANGO** Markel Onaindia Bost eraso sexista hamar egunean. Abuztuaren 21etik 31ra bitartean, bost emakume durangarrek salaketak ipini dituzte indarkeria matxistaren biktimazateagatik. Udalak erasoak

gaitzetsi ditu, eta emakumeak babesteaz gainera, mugimendu feministak atzorako deitutako elkarretaratzeagaz bat egin du.

Bost kasuetako hiru Bilboko jaiekin lotuta daude. Abuztuaren 21eko goizean, Bilbotik

bueltan zetorrela, tren geltoki inguruan gizonen batek eraso egin ziola salatu zuen neska batek –erasoari aurre egin eta etetea lortu zuen–. Bigarren erasoak 27an izan zen, zapatu gaez, Bilbon bertan, emakume duran-

garra jaietan zegoela. Hirugarrena 28an, domeka goizean jazo zen. Bilboko autobusetik bajatu, eta neska etxera bidean zihola, gizonen batek jarraitu eta jazarri egin zuen. Ertzaintzak lehen bi kasuekin lotuta gizon bana atxilotu du; hirugarrenaren bila dabilta.

Laugarren kasua zapatukoa da, 27koa. Gizon batek bere bikotekidea mehatxatu zuen Durangon, eta emakumeak salaketa ipini zuen. Ondorioz, urrutze agindua ezarri diote gizonari.

Atzo eman zuen udalak bosgarren erasoaren berri. Eguaztenean gertatu zen; gizon batek bere bikotekidea jo zuen, eta emakumeak salaketa ipini du. Gizona auzipetu dute.

### “Lan handia aurretik”

Durangoko Udalak indarkeria matxistaren aurkako protokoloa aktibatu du eraso horien eraginez. “Azken eraso hauek erakusten duten bezala, lan handia dago aurretik”. Azaldu dutenez, “puntu beltz berriak” identifikatzea eta “berdintasunean hezteak” beharrezkoa izango da erasoak saihesteko.

## Errotari taldeak erakusketa ipini du museoan

### DURANGO M.O.

Gaurtik hilaren 18ra bitartean, Errotari mikologia taldearen erakusketa egongo da ikusgai Durangoko Museoan. Hain zuzen ere, *Perretxikoak eta argazkigintza* izeneko argazki erakusketa da.

San Fausto jaietan, estatuko argazki lehiaketa antolatzen du mikologia taldeak

2000. urteaz geroztik, San Fausto jaietan, estatuko argazki lehiaketa antolatzen du mikologia taldeak, eta lehiaketa horretan saritutako argazkiak ikusi ahal izango dira erakusketan. Horrez gainera, Errotari elkarteko zenbait kidek ateratako argazki batzuk ere ipini dituzte herritar guztien bistara.

# Geltoki zaharreko lurzorua urbanizatzen hasteko pausoa

Jaurlaritzak Durangoko Udalaren esku utziko du geltoki zaharreko lursaila

### DURANGO M.O.

2012ko abenduaz geroztik tren lurpetik doa Durangon, baina trenbide zaharraren eragina ez da desagertu oraindik. Lurzoruan pasagune batzuk zabaldu badituzte ere, eremu handi batek zarratuta jarraitzen du, herrigunea erdibitzen. Geltoki zaharreko lurretan tailerrak eta kotxetegiak kendu zituzten, eta 60.000 metro karratuko eremua hutsik dago. Azken berrien arabera, badirudi egoera laster

aldatuko dela. Izan ere, geltoki zaharreko lurzoru hori urbanizatzen hasteko pausoa eman dute Eusko Jaurlaritzak eta udalak. Jaurlaritzak udalaren esku utziko ditu lurrak, eta 7 milioi euro inbertituko ditu urbanizazioan laguntzeko.

### Hitzarmena udalagaz

Jaurlaritzaren menpeko ETS enpresa publikoak (Euskal Trenbide Sarea) eman du erabakiaren berri, eta iragarri du

laster sinatuko duela hitzarmena udalagaz. “Durangoko Udala izango da eremuaren jabe, eta beharrezkoa deritzon erabilera publikoa eman diezaioke”.

### Datarik ez

Momentuz ez dago lursailaren urbanizazioagaz lotutako beste datu eta eperik. Udaletik berria baieztatu dute, baina adierazi dute irailean zehar argituko dituztela egitasmoaren nondik norakoak.



Jaurlaritzak 7 milioi euro ipiniko ditu urbanizazioan laguntzeko.

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta  
Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:  
946 232 523

Publizitatea:  
946 217 902  
publi@anboto.org

2016ko irailaren 2a  
14. urtea - 643. alea

**Zuzendaria:**  
Jone Guenetxea Arrinda.  
**Administrazio burua:**  
Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:**  
Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:**  
Itxaso Martinez de  
Arenaza Yarza eta Nagore  
Txintxurreta Isasi.  
**Erredakzioa:**  
Aitziber Basauri Gandiaga,  
Itsaso Esteban Urriaga,  
Joseba Derteano Bilbao,  
Markel Onaindia Txabarri,  
eta Maialen Zuazubiskar  
Gallastegi.  
**Maketazioa:**  
Eider Alberdi Bengoa.  
**Zuzentzailea:**  
Mikel Azkarraga Etxegibel.

### Laguntzaileak:



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek  
Bizkaiko Foru  
Aldundiaren  
laguntza jaso du





## Datorren astean hasiko dira futbol-zelaia konpontzen

### ZALDIBAR I.E.

Abuztu hasieran esleitu ditu Zaldibarko Udalak futbol-zelaian egingo dituzten konpontza lanak. Udal gobernuak asteon jakitera eman duenez, Sadekosa S.A. enpresak burutuko du 136.761 euroko aurrekontua daukan proiektua.

Arantza Baigorri Zaldibarko alkateak adierazi duenez, datorren astean hasiko dute obra, eta bi hilabeteko epea izango dute lanak amaitzeko. Obrak futbol-zelaiko jarduean eraginik izango ez duela azpimarratu du udalak.

Zaldibarko Udala 145.000 eurogaz indemnizatu dute Solobarría eraiki zutenek. Ekainean eman zuen udal gobernuak albiste: kalte-ordain horregaz, obra gauzatu zutenek "gaizki egindako guztiak konponduko" zituztela aurreratu zuten. Besteak beste, 2008an inauguratu zuten futbol-zelaia isolamendua hobetuko dute hezetasunagaz dauden arazoak konpontzeko asmoz.

# Durangaldeko zerrendagaiak legebiltzarrera bidean

Urkullu (EAJ) eta Agirre (EH Bildu) Bizkaiko zerrendaburuak dira

### DURANGALDEA M.O.

Hauteskunde kanpainak oporraldiaren amaieragaz bat egin du. Asteon, EAEko aldizkari ofizialean hauteskundeetara aurkezten diren hautagaien zerrendak kaleratu dituzte. Irailaren

25ean Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetara Durangaldeko hainbat lagun aurkeztuko dira. Uztailaren amaieran EH Bilduk Jasone Agirre kazetari abadiñarra Bizkaiko zerrendaburu legez aurkeztu zuen. Maddalen

Iriarte, urteetan Durangon bizi den kazetari donostiarra, berriaz, Gipuzkoako zerrendaburu da. Gipuzkoako Hauteskunde Batzordeak ez du onartu EH Bilduk jarritako helegitea, eta Arnaldo Otegi hauteskunde

zerrendatik kanpo utzi ostean Iriarte bigarren postetik lehengora pasa da. Oraindik alda daitezke gauzak. Auzitara jo du koalizioak, eta Otegiren parte-hartzea epaitegietan ebaztiko dute.

EH Bilduren zerrendan Julen Arzuaga laugarren dago. Daniel Maeztu Durangoko zinegotzia eta Aritz Otxandiano Otxandio alkate ohia ere zerrenda horretan agertzen dira, seigarren eta hamargarren postuetan, hurrenez hurren.



Aurreko legebiltzarrerako hauteskundeetako argazkia.

### Urkullu zerrendaburu

EAJk Iñigo Urkulluren aldeko apustua egin du irailako hauteskundeetarako. Irabaziz gero, Urkulluren bigarren agintaldia izango litzateke Eusko Jaurlaritzaren gidaritzan. Jeltzaleen zerrendan Zornotzako alkate izandako David Latxaga zortzigarren postuan dago, eta Aitziber Irigoras Durangoko alkatea hamahirugarren.

### Atorrasagasti ATTKAA

Ainara Atorrasagasti durangarra Animalien Tratu Txarren Kontrako Alderdi Animalistako (ATTKAA) kide da. Irailaren 25eko hauteskundeetarako zerrendan bederatzigarren postuan dago.

# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK

Ander Castillo Zugazartaza. Elorrio

## GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2016-2017



Zergatik aukeratu zenuten Mekatronika industrialeko heziketa zikloa egitea? Eta, Zergatik Mondragon Goi Eskola Politeknikoan?

Lauxeta ikastolan batxiler teknologia amaitu nuenean, ez neukan oso argi zer egin nahi nuen. Garbi neukan gauza bakarra zen ez nuela liburu artean bakarrik jarraitu nahi, gauza praktikoa egin nahi nituela eta poliki-poliki lan mundura gerturatu.

Niri betidanik gustatu zait, txikitatik, mekanikaren eta motorren mundua; baserrian beti nengibilen gauza berriak asmatzen, motozikletekin aurrera eta atzera...

Baina, ez neukan argi zer egin, aurretik esandakoaz gain basoen kudeaketako eta nekazaritzako heziketa zikloetan ere interesa nuen.

Jendearekin hitz egin ondoren, hainbat iritzi entzun ondoren, eta asko pentsatu eta gero, mekatronika industrialaren heziketa zikloan izen ematea erabaki nuen.

Momentu honetan, esan behar dut, ez naizela inondik inora damutzen hartutako erabakiaz.

Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren hautatzeko arrazoiak bi izan dira: batetik, Elorrikoa izanda, heziketa ziklo hau egiteko gertuen dagoen zentroa dela eta bestetik, zentro honek eskaintzen dituen zerbitzuak eta klaseak emateko moduak, beste batzuk baino askoz gehiago erakartzen nindutela.

Pasa den larunbatean ziklo berdina beste ikastetxe batean egiten ari den lagun batekin egon nintzen, berak egindako gauzak nik egindakoekin konparatu nituenean, konturatu nintzen nik gauza gehiago eman nituela, bai tailerrekoak (proiektuak) baita, teoriakoak ere.

Heziketa ziklo honetan ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue, hau da, ekipo-lanean erronkak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue. Zer nolako ERRONKAK egin dituzue lehen urte honetan?

Pertsonalki esan behar dut metodo hau oso eraginkorra dela, bai gauzak ikasteko baita, talde lanean, pertsona ezberdinekin, ondo lan egiten ikasteko ere.

Ikasturte hasieratik taldeka hainbat erronkei egin diegu aurre: fluido bat botatzen duen kubo bat kontrolatzea, aparkaleku bat kontrolatzea, mekanizazio zentro bat kontrolatzea, garbigailuak muntatzeko katea, bi zilindro hidrauliko dituen makina bat kontrolatzea, aire konprimituko instalazioetan praktikak, tratamendu termikoak eta urteko azken erronka gisa, igogailu bat eraikitzea.

Lotura hauetan ikus daitezke landu ditugun erronketako bi: <https://www.youtube.com/watch?v=2Bm0nTjvbPA> <https://www.youtube.com/watch?v=Oqmk6zdAXJE>

### Nola baloratuko zenukete zuen esperientzia?

Urte honetako esperientziaren balorazio positiboa egiten dut. Gauza asko ikasi ditut, ez bakarrik mekanikakoak, baita talde lanekoak edo programa berriei (autocad, automation studio, Tia porta...) buruzkoak ere. Nire ikaskideekiko harremana oso ona izan da, eta denok ikasi dugu besteengatik eta alderantziz. Era berean, esan behar da, nabaritzen dela oso gustura gaudela irakasleekin eta eurak gurekin, esan dezakegu harremana ona izan dela.

Lehen nire buruari egiten nizkion zenbait galdera, eta hau nola egingo da?... galdera horietako askoren erantzuna aurkitu dut ziklo honetan.

Beste alde batetik, esan behar dut, alderdi asko landu ditugula: fabrikazioa, elektronikoa, programazioa, makinen elementua, hidraulika, neumatika, marrazketa grafikoa...

Hobetzeko gisa soldadura ordu gehiago jartzea proposatuko nuke, uste dudalako, etorkizun batean beharko dugula. Gainontzekoan pozik eta gustura Mekatronika Industrialeko lehenengo urte honetan.

[www.mondragon.edu/gmh](http://www.mondragon.edu/gmh)

### Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Automatizazioa eta Robotika Industrial
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Mekatronika Industrial



# Elorrioko Transportes Nanuk enpresa zarratu egingo dute

Egun gutxiren buruan itxiko da ia 100 behargin dituen Nanuk enpresa

**ELORRIO** Markel Onaindia Elorrioko Transportes Nanuk enpresak ateak zarratuko ditu berehala, egun gutxiren buruan. Izan ere, bost bat urteko

gatazkaren ostean, administrazio konkurtsalean egon da enpresa, eta, orain, desagertzeko espediente onartu berri dute -CCOOn aldeko botoekin (3)

eta LAB eta ELAren aurkakoe-kin-. Itxieraren ondorioz, ia 100 behargin geratuko dira lanik barik, eta Fogasatik kalte-ordainak jasoko dituzte.



Uztailan elkarretaratzea egin zuten Eroskiko zentralaren parean.

Nanuk lanaren %90 Eroskirentzat izan dela esan dute LABek eta ELAk, eta horregatik, saltokiari beharginak subrogatzea eskatu diote. Gainera, LABeko ordezkarien ustez, "lana badago, eta lanpostuak ez dira desagertzen".

LABen iritziz, enpresako bazkideena da errua. "Ez dute aurpegirik eman. Euren sosak gorde dituzte, eta beste beharginetaz ez dira arduratu".

## Sindikatuaren jarreraz

Nanukeko gerentea ez da sindikatuaren iritziz berekoa. Bere arabera, salmentak behera etorri dira azken urteetan. "2016ko aurreikuspena %30 baxuagoa zen". Horrez gainera, azken urteetan "sindikatuak arazoaren parte" izan direla kritikatu du.

Baina, LABekoei "arraroa" egiten zaie enpresak lana eduki eta zarratu behar izatea.

Enpresa itxita, gatazka luze bat amaituko da. 2013an, 63 eguneko greba egin zuen lan talde erdiak.

## EH Bilduren "gestio arrunta" kritikatu du EAJk

**ELORRIO** J.G.

EH Bilduko gobernu taldeak legegaldiko lehen urtearen balorazioa egin zuen, eta EAJk bere iritzia eman gura izan du. "Kudeaketa arrunta" oinarri izan duen urtea izan dela azpimarratu du Joseba Mujika

Gobernu taldeak lehen urtearen balorazioa egin zuen, eta EAJk iritzia eman gura izan du

jeltzaleak. Horren aurrean, "proiektu estrategikoak" sortzea gura du: Pulla-Azkarreta industrialdea, Argiñetako nekropoliko museo proiektua eta Fytasaren lurretan kiroldegia eraikitzea, esaterako.

## Erakusketa berria ipini dute Hontza museoan

Itsas izarrak edota itsas trikuak daude ikusgai

**MAÑARIA** J.G. Hontza Museoak ekinodermatuei buruzko erakusketa inauguratu zuen abuztuan. Horrela, gai berriak ikusteko aukera dago natur zientziei

eskainitako espazioan. Itsas izarrak, itsas trikuak eta beste hainbat ale daude ikusgai. Azaroan urte bi beteko ditu museoak, eta hainbat naturazale bildu ditu tarte honetan.



Hainbat bisitari izan ditu Hontza museoak uda honetan.

## Maiztegiko geletako isolatze baldintzak hobetu dituzte

**IURRETA** A. Basauri

Maiztegi herri eskolako fatxada nagusiko eta beheko solairuko kanpoko arotzeria aldatu du Iurretako Udalak. Gelen isolatze termikoaren eta akustikoaren baldintzak hobetu dituzte lanekin. Baita eraikuntzarako sarreraren segurtasuna bermatu ere. Beheko solairuan dagoen sarrera nagusiak aluminiozko arotzeria izan du, eta "sabotajeak eta lapurrekak" izan dituzte. Lanok 52.000 euroko inbertsioa eskatu dute.

PVCzko arotzeria jarri da, beira bikoitzagaz eta segurtasuneko saretekin, beti ere Eraikuntzarako Kode Teknikoaren (EKT) baldintzak bete zeko asmoz.

## Legañoko arkeologia lanetatik bisita gidatua

Bisita gidatuak euskaraz eta gaztelaniaz

**BERRIZ** M.Zuazubiskar Legañoako arkeologia lanetatik bisita gidatua antolatu du bihar-ko Berrizko Udalak.

2011n Legañoako San Pedron arkeologoen kanposantu batean lorratzak aurkitu, eta hainbat lan egin dituzte harrezkero. Duela bost urte hasi zituzten lan horien ondorioz hiru sasotako aztarnak aurkitu dituzte Legañoan, IX. mendetik XIX. mendera artekoak.

Berriztarrek milaka urteetako historia gordetzen duen gune historikoa bisitatzeko aukera izango dute zapatuan.

Orland Isoird alkateak adierazi duenez, beste urteetan ez bezala Legañoako San Pedro

arkeologia lanak bisitatu gura dituenak ez du aurretiazko izen ematerik egin behar. Hala ere, udal gobernuak jakitera eman duenez, arkeologia gune-rik hasiko diren bisita gidatu horietan, gehienez 20 pertsona-ko taldeak egingo dira.

## Ordutegi ezberdinak

Gainera, Legañoako indusketa lanak bisitatzera joaten direnek euskarazko edo gaztelaniazko azalpenak entzuteko aukera izango dute. Euskaraz egingo den bisita gidatua 10:00etan hasi eta 11:30ean bukatuko da, eta gaztelaniazkoa, berriz, 12:00etan hasi eta 13:30ean bukatuko da.

**Smurfit Kappa**  
Central Forestal

**48 urte**  
EUSKADIKO  
PINUDIAK  
ZAINTZEN

**Smurfit Kappa**  
Nervión





# GREMIOEN GIDA



## ARKITEKTURA

**ARKI  
TEK  
SAN**

ARQUITECTURA, ENGENIARIA, TECNICOA  
EQUIPO DE ARQUITECTURA TECNICA

- OBREN ZUZENDARITZA
- PROIEKTUAK / BIRGAITZEAK
- ERREFORMA ETA GARAPENERAKO
- NEGOZIO LOKALEN PROIEKTUAK
- ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOAK
- NEURKETAK, PLANOAK
- ETA AURREKONTUAK EGITEA
- ERAGINKORTASUN
- ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK

WWW.ARKITEKSAN.COM  
622 745 419  
NIZETO URKIZU 12. ELORRIO  
INFO@ARKITEKSAN.COM



## GARBIKETA

**AZKARGI  
GARBIKETAK**

Auzo elkarte, garaje  
eta obra osteko garbiketak

Goietia, 46 - 2 esk. ELORRIO  
Tel.: 615 791 215



## LOREZAINNTZA

*Jardines*  
**Patxi**  
*Lorategiak*

Mantenua eta diseinua  
Landaketa eta Inausketak  
Ureztatze sistemak  
Barrualde eta kanpoaldea  
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Montevideo, 23-1 ezk DURANGO  
PATXI: 696 463 085



## ITURGINTZA

**Mallabiena** 

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA  
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6  
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862  
mallabiena@mallabiena.com

  
**Ubide**  
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208  
ubide@euskalnet.net  
48200 DURANGO  
188 PK.

  
**UNAI  
GARAY**  
ITURGINTZA  
BEROGINTZA  
GASA

Kanpatorrosteta 7B, 3.A · 48200 Durango  
659 673 790 · unaigaray@yahoo.es



## DEKORAZIOA

**JAIObarnizatuak**

Markoen, ateen, zokaloen,  
armairu aurrekaldeen eta  
era askotariko altzairuen lakadura.

Pintura eta pintura apaingarria.

Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ  
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421  
info@jaiobarnizatuak.com  
www.jaiobarnizatuak.com



## LEIHOAK

**Leihoak** 

ALUMINIOA · PVC-A · MISTOA

Casimiro Astola kalea, 12 ABADIÑO  
info@ventanas-durango  
Tel.: 652 736 339  
www.ventanas-durango.com



**Profesional  
onenak zure  
zerbitzura!**



## Eskalada-horma atondu du udalak Traña-Matienako kiroldegian

Estalitako kiroldegian, frontoi ondoan ipini dute eskaladarako gune berria

**ABADIÑO** J.G./I.E.

Abadiño Udalak 28.165 euroko inbertsioa egin du Traña-Matienako erabilera anitzeko kiroldegian eskalada-horma bat eraikitzeko. Eguraldia edozein delarik ere, estalitako gune horretan entrenatzeko aukera izango dute eskalatzaileek, eta kirol hori ezagutu eta praktikatzen ahalko dute hala gura duten herritar guztiek.

Traña-Matienako erabilera anitzeko eraikineko frontoiaren ondoan dago eskaladarako murrerria, eta sare batek bereizten du eraikin horretako beste kirol jarduerak batzuk burutzeko prestaturiko kantxetatik.

Udaleko gobernu taldeak azaldu duenez, Jazz Solutions enpresak diseinatu du eskalada-murrria, eta lau bulderrek osatzen dute rokodromoa: 2,90


metroko zabalera eta 7,5 metroko altuera dute bulderretako bik; 3,5 metroko altuera eta 5,70 metroko zabalera dauka hirugarren bulderrak; eta hasiberrientzat atonduriko horma

“Rokodromo honeguz herritar gehiagok egin ahalko dute kirol hori instalazio publikoetan”

Alkateak azaldu duenez, hil honetan zehaztuko du udalak rokodromoaren erabilera araudia

lau bat ere badago. Ahalik eta erabiltzaile gehienentzat aukerako espazioa eskaintzeko helburuagaz, zailtasun maila desberdinetako hormak atondu dituzte. “Ahalik eta rokodromo osotuena egiten saiatu gara”, dio Jose Luis Navarro alkateak. Abadiño Udalak kirola bultzatzeko duen konpromisoa azpimarratu du, bestalde, Eneko Etxebarria zinegotziak: “Abadiño Udaletik bideak jarri gura ditugu abadiñarrek kirola egin dezaten, jakinik zeinen garrantzitsua den ariketa fisikoa herritarrentzat, eta rokodromo honeguz herritar gehiagok egin ahalko dute kirol hori Abadiño instalazio publikoetan”.

Jose Luis Navarro alkateak azaldu du hil honetan zehaztuko dutela rokodromo berria erabiltzeko araudia.



Zailtasun maila desberdinetako lau bulder atondu dituzte.

## Larruskain eta Bugallo hartuko dituzte gogoan Muntzaratzen

Kontzertua izango da jaietan gaur, Bugallo eta Larruskain omentzeko

**ABADIÑO** I.E.

Gaur, irailaren 2an, hasiko dira Muntzaratz auzoko jaiak, eta jaien lehenengo egun honetan egingo dute aurten auto istripuz

hil diren Jon ‘Peli’ Larruskain eta Aitor Bugallo herrikideen omenez antolatu duten kontzertua. The Artichokes, Crap eta Txapito Guzman eta Ibarrako

Langostinuek taldeek joko dute 23:00etan hasiko den emanaldi horretan.

Kontzertu horien aurretik, 19:00etan ipiniko dute Muntzaratzeko jaien Donien Atxa, eta asteburu osoan zehar askotariko ekintzak izango dira Abadiño auzo horretako jaietan. Bihar Mozorro Eguna ospatuko dute, eta buruhandiak, umeentzako puzgarriak, eta disko dantza topatuko dituzte, besteak beste, bertaratzen direnek.

Irailaren 10 eta 11ko ekitaldiekin emango dituzte Muntzaratzeko jaiak amaitutzat: irailaren 10ean 13 urte artekoentzako futbito txapelketa izango da, eta Duetloi txikia irailaren 11n.



Gaur, 19:00etan, Donien Atxa ipinita hasiko dituzte jaiak.

## 20 dendatan erabili ahal dira erosketak bonuak

Udalak ipini du martxan erosketak bonuen kanpaina

**ABADIÑO** I.E.

Traña-Matienako, Zelaieta eta Muntzaratz auzoetako 20 komertzio parte hartuko dute udalak herriko merkataritza bultzatzeko helburuz martxan ipini duen kanpaina horretan. Irailaren 30era arte iraungo du kanpaina horrek.

500 erosketak bonu ateratu dituzte udalak, eta udaletxean edo Traña-Matienako udal bulegoan eskatu ahalko dute abadiñarrek. Bono bakarria emango diote eskatzaile bakoitzari. Bonua 20 euro ordainduta eskuratu, eta kanpainagaz bat egin duten dendetan —kartel bat ipini dute kanpainagaz bat egin duten dendetan—, 30 euroko erosketak egin ahalko da.

Iñaki Rekalde zinegotziak azaldu duenez, kanpainagaz bat egin duten komertzioen artean, tabernak, ile-apaindegiak, eta liburu-denda eta farmazia bana dago. “Pozik gaude merkatariek kanpainari eman dioten erantzunagaz”, esan du Rekaldek, “orain, kontsumitzaileek kanpainari harrera ona egitea da espero duguna”.

20 euro ordainduta eskuratu ahalko dute abadiñarrek bonua, eta 30 euroko erosketak egin

**m o m t x**  
t a b e r n a

Plateruen plaza, 12 DURANGO  
Tel.: 946 811 006

**GAER** DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



# OSASUN GIDA

## FISIOTERAPIA

## PEDAGOGIA

**Zainduz**

**FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,  
behea eskuma  
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13



**PABLO ZUBIZARRETA**  
FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D - 48200 DURANGO  
pzubizarreta@gmail.com

Tel.: 946 550 049  
Mug.: 695 784 963

RPS: 57/16

**UGATZ**

**UMEAREN  
GARAPENERAKO  
ZENTROA**

Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea,  
fisioterapia, logopedia

Juan Olazaran, 1 behea  
48200 DURANGO

ugatz@hotmail.es

Tel.: 944 668 370 - 615 782 090

RPS: 63/63

## PODOLOGIA

## ESTETIKA

## OPTIKA

**PODOLOGIA  
KLINIKA**

**GOIATZ MURUA  
PODOLOGOIA**

**AINHOA ELORZA  
PODOLOGOIA**

Kiropodia, onikopatia, alterazio  
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 - behea  
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630

RPS: 148/13

**AGIRRE KLINIKA**  
MEDIKUNTZA ESTETIKOIA

[www.medicinaesteticadurango.com](http://www.medicinaesteticadurango.com)

**Laser berria:**  
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa,  
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...  
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6  
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09

**keinu** optometria zentroa

Nala Zabala Azumendi  
11587 kol. zk.

- Optometriar teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia
- SENA estimulazio neuroauditiboa.

Arkaraz 3  
48240 Berriz  
tel: 946225099

[www.keinuoptometrizentroa.com](http://www.keinuoptometrizentroa.com)

RPS: 162/13

## ODONTOLOGIA

## PSIKOLOGIA

**clinicadental hortzklínika**

**B. UNAMUNZAGA  
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA  
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2C - behea  
48200 DURANGO

uecdental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

RPS: 145/13

**J.L. URRETA ZABALO**

MEDIKU ESTOMATOLOGOIA  
IMQ, PADI (umeen hortz programa)  
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.  
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

RPS: 112/13

**JON ARRUBARRENA**

PSIKOLOGO KLINIKOIA  
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO  
jon@psikologo.biz - [www.psicologo.biz](http://www.psicologo.biz)

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11



# Gaur irekiko dute Osasun Zentro berria etengabeko arreta guneagaz

Astelehenetik aurrera hasiko dira gainerako zerbitzu guztiak eskaintzen



Osasun Zentroko eraikin berria San Migel kalean.

**ZORNOTZA** J.Derteano  
Zornotzako Osasun Zentro berriak gaur irekiko ditu ateak. 17:00etatik aurrera, asteburuetan indarrean egon ohi zen Etengabeko Arreta Gunea zerbitzua eskaintzen hasiko dira azpiegitura berrietan. Osasun Zentroan eskainiko dituzten gainerako zerbitzu guztiak astelehenetik aurrera egongo dira indarrean eraikin berrian. Horrekin batera, astelehenean bertan Kaitanako parke berria ere irekiko dute.

2014ko azken hiruhilekoan hasi zituzten Osasun Zentro berria eraikitze lanak. Guztira, ia 4.000 metro karratu ditu lau solairutan banatuta.

Zentro berrian eskainiko duten zerbitzu berrietako bat birgaitze gunea izango da. Orain arte, zornotzarrek eta Arratia eskualdeko biztanleek Galda-kaoko ospitalera joan behar

zuten zerbitzu hori jasotzera. Osakidetzako datuen arabera, 2013an 5.520 pazientek erabili zuten birgaitze gunea Galda-kaoko ospitalean. Zornotzako azpiegitura berrian lehen solairuan eta hiru gelatan banatuta egongo da.

## Zerbitzuen banaketa

Beheko solairuan bezeroen arretarako gunea, familia medikuntzako eremua (erizaintza, sendaketa gela, odola ateratzeko gela) eta pediatriako eremua egokitu dituzte. Lehen solairuan, birgaitze guneagaz gainera, emakumearen arreta gunea (ama hezkuntza, emagina, ginekologia eta azterketa guneek gela bana dute), eta familiako medikuntzarako beste gune bat (erizaintza eta sendaketarako hainbat gelagaz, besteak beste) jarri dituzte.

Bigarren solairuan ere familia medikuntzari bideratutako hainbat gela egokitu dituzte, eta baita kirurgia txikientzako gune bat ere. Osasun zentroko unitate buruaren bulegoa ere bigarren solairuan kokatuta egongo da.

## Eraikin zaharra

Orain arte Zornotzako Osasun Zentroa hartzen zuen eraikina hutsik geratuko da astelehenetik aurrera. Udalak musika eskola berri bat egingo du gune horretan. Horretarako, idea lehiaketa bat abiatu eta 2015 erdialdean proiektu irabazlea aurkeztu zuten. Javier de las Heras Solé arkitekto katalanak aurkeztutako proiektua hautatu zuten Zubiaur Musika Eskola berria eraikitzeke. Hiru solairuko eraikina izango da, eta denera, mila metro koadroko azalerakoa.

## Auzoko jaietan murgilduko dira, gaur, Euban

### ZORNOTZA I.E.

Gaur hasi eta astelehen arratsaldera arte ibiliko dira Euba auzoan jaietan. Ume, gazte zein helduentzako jolaserako gonbidapenagaz hasiko dituzte jaiak, gaur, 16:30ean. Egurrezko jolas tradizionalekin ibiliko dira jolasean. Iluntzean, mus txapelketa jokatu dute.

Mozorro Eguna ospatuko dute, bestalde, bihar: elkarrengaz bazkaltzeko elkartuko dira, lehenengo, eta Xaibor DJaren emanaldia izango da, ondoren.

Domekako jai egitarauko ekitaldiak 12:00etako mezagaz hasiko dituzte. Arratsaldean, 18:30ean, Iurretako dantzarien eta Zornotzako bertsolari eskolakoen emanaldiak, eta antzerki saioa izango dira. Rezikletas Turukutupa taldeak eskainiko du musika eta antzezlanak.

Astelehena izango da Eubako jaien azken eguna. 12:00etako mezaren osteko luntxa egingo dute eguerdian, eta hirukoteen arteko briska txapelketa jokatu dute, 16:00etan.

## Eguaztenean itzuli ziren etxera Axpen zeuden 15 ume sahararrak

### ATXONDO J.D.

Hamadako Izarrak elkartearen bidez Axpeko aterpetxean uda eman duten 15 gazte sahararrak eguaztenean itzuli ziren etxera. Begirale eta sukaldariek batera egindako jaitxo bat antolatu zuten agur esateko, Axpeko plazatik jaurtitako su artifizial eta guzti. Datorren urtekoa azkeneko aldia izango dute gehienek 12 urte egingo dituztelako, eta adin hori da etorri ahal izateko muga. Ordutik aurrera, ziklo berri bati ekin eta talde berria ekartzea da Hamadako Izarra ekimeneko antolatzaileen helburua.

### Rio de Oroko gazteak

Bestalde, Rio de Oro ekimena bidez uda Izurtzan eman duten gazteak ere eguaztenean itzultzeok ziren, hegaldi bitan. Horietako bat bertan behera gelditu zen, eta beraz, hiru umek Loiuko kiroldegian pasatu behar izan dute gaua beste 140 sahararrekin batera.

## Santa Agedako barra Angelman Sindromea elkartearen esku

### IZURTZA J.D.

Izurtzako jaiak gaur hasiko dira, eta domekan Santa Ageda ermitaren inguruan antolatuko dute jai eguna. Ermitaren ondoan aterpe bat dago, eta azpiegitura hori jan-edanerako barra bat jartzeko erabiltzen du urtero herritar talde batek. Aurten, herritar talde batek barik, elkarte batek hartuko du barraren ardura: Durangaldeko Angelman Sindromea elkarreko kideek kudeatuko dute.

Egun horretan ateratako diruak jomuga solidarioa izatea gura zuen udalak, eta barran ibili izan diren artean Durangaldeko Angelman Sindromea elkarteari hartuemanan duten kideak zeudenez, euren eskaini diete. Jan-edanagaz batera elkartearen inguruko eskumuturrekoak zein gaixotasunaren inguruko liburuxkak ere eskuragarri jarriko dituzte beste material batzuzagaz batera.

Elkarteko materiala eta eskumuturrekoak eskuratzeko aukera ere egongo da



**CEPA DURANGO HHI (Helduen Hezkuntza)**  
Doako irakaskuntza ofiziala

**MATRIKULA**





**IRAKASKUNTZA ARAUTUA**

- I. GRADUA
- II. GRADUA
- III. GRADUA (DBHko graduatua)

**IRAKASKUNTZA EZ-ARAUTUA**

- Gaztelania atzerritarrentzat.
- Goi mailako zikloetarako eta Unibertsitaterako sarbide probak.
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa (hasiera-maila).

**MATRIKULA ZAITEZ**  
946 814 253  
[www.epadurango.hezkuntza.net](http://www.epadurango.hezkuntza.net)

**MATRIKULA-EPEA: irailaren 2tik 16ra**

**Matrikula egiteko ordutegia:**  
Astelehenetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00. Ostiraletan: 09:00-13:00



# Lanak ia amaituta, normaltasunez hasiko dituzte klaseak eskolan

“Detaile txikiak” falta arren, arazorik barik ekin ahalko diote ikasturteari



Langileak eskolako fatxadan lanean, eguazten arratsaldean.

**OTXANDIO** J.Derteano  
Mainondo eskolako ikasturte berria egunean hasiko da. Eskola paretik igarotzen denak eskolaurrea hesiturik eta materialez pilatuta aurkituko du, oraindik fatxadetan egiten ari diren lanen ondorioz. Baina udal ordezkarien arabera, datorren asterako prest egongo da guztia: “Erremate txikiren bat gelditu liteke, baina, orokorrean, amaituta egongo da”. Beraz, normaltasunez hasi ahal izango dituzte klaseak.

Lanen barruan, Mainondon dagoen eskolari estalki berezi bat jarri diote, energetikoki eraginkorragoa izan dadin, eta leihoak ere aldatu dituzte. Kanpoaldea hainbat berde tonu erakusten dituen material batez jantzi dute.

Eskolak logotipo berria izango du ikasturte honetatik aurrera, eta irudi hori sarrerako fatxadetan ikusi ahalko da. Hiru metroko luzera eta beste hainbesteko zabalera duen metalezko xafla batean landurik jarriko

dute. Maiatzean logotipo berri-rako proposamenak jasotzeko eskolatik egindako deialdiak ez zuen arrakastarik izan. Ondorioz, udaletik kudeatu duten gaia izan da.

**Sukaldeko lanak**  
Eskolako sukaldeko lanak ere amaituta daude. Neguan udalak gas azpiegiturak egin zituen. Ondoren, Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak sutege berriak jarri zituen fatxadako lanak hasi aurretik.

## Usatorreko bidea konpontzen hasi da udala

**MALLABIA** J.Guenetxea  
Usatorre baserrirako bidea de-seginda geratu zen martxoko lur-jausien ondorioz. Orduetik, baserri horretako bizilagunak Mallabiko Udalak herrigunean duen pisu batean daude bidea konpondu artean. Igor Agirre alkateak dioenez, astelehenean ekin zioten bidea konpontzeari. Lur mugimenduaren ostean, pista atonduko dutela aurreratu du alkateak. Azarorako bidea prest egotea aurreikusiko dute udal arduradunek.

## Ur deposituak konpontzeko obra amaitu dute

**GARAI** M.O.  
San Migeleko eta Trumoitteko ur deposituak konpontzeko obra amaitu du udalak. Maiatzaz geroztik hasita zeuden lanak, eta udan zehar amaitzea aurreikusita zeukaten. Aurten go udal aurrekontuko proiektu esanguratsuenetako bat da herriko ur saneamendua hobetzearena.

42.000 euroko inbertsioa egin dute obran, eta Bizkaiko Foru Aldundiak 28.000 euro gaz lagundu dio udalari.

### SEI HANKAKO MAHAIA

**DANI MAEZTU**  
EH Bildu



### Inpunitatea

Bosgarren eraso sexista Durangon azken bi asteetan. Ez, ez da madarikazio bat, gure gizartean oso sustraituta dagoen hegemonia matxistaren beste ondorio bat baizik. Jakinik jatorria zein den, erraza izan beharko litzateke arazoa konpontzea, baina ez dugu nahi, beraz, zoritxarrez, mota honetako eraso gehiago emango dira. Matxismoa gure gizartearen esparru guztietan ezarrita dago, partikularretik hasi eta, instituzioetan bukatu, bidean komunikabideek jokatzen duten papera ahaztu barik. Edozein kasutan, Institutio publikoetatik zabal-tzen diren mezuek garrantzi berezia dute, oihartzun handiagoa dutelako eta gizarte esparru zabaletara heltzen direlako, alegia, matxismoa borrokatzeko aitzindaria izan beharko litzatekeen esparrua, matxismoa zabal-tzen liderra delako.

Atzo, osteguna, Durangon egondako kontzentrazioan sexu erasotzaile bati indultua eman zion alderdiaren ordezkariak eta indultua eskatu zuen alderdiaren ordezkariak ere egon ziren. Ordezkari horiek ez dute inongo erantzukizuna indultu horretan, eta ez dut zalantzan jartzen euren konpromisoa matxismoaren kontra. Baina Durangon faltan botatzen ditugu indultu horren inguruko argibideak: nortzuk? nola? Eta garrantzitsuena, zergatik? Behin hori jakinda jarrera irmo bat, hori onartu dutenak alderditik kalera-tzeko. Indultu horrekin erasotzaile sexistei helarazten zaien inpunitate mezua jasazinezina delako matxismoaren kontrako borrokan.

### DURANGALDEA ASTEON

#### Berna auzoan zubi berria egingo dute

**IURRETA** > Iurretako Fauste auzorako sarbide lez erabiltzen den Bernako (Zornotza) zubia bota, eta berria eraikitzeko hitzarmena sinatu dute Iurretako eta Zornotzako udalek. Lanek 200.000 euroko inbertsioa eskatuko dute, eta bi udalek erdibana egingo diote aurre.

Urte hasierako euriteen eraginez “egoera txarrean” dago Bernako zubia, udal ordezkarien esanetan.

#### Espainiako militarrek Urkiolan ibili dira

**ABADIÑO** > Militar talde bat Urkiolan ibili zen maniobra egiten martitzenean, baina ez zioten udalari abisatu. “Egin ahal zuten gutxienekoa abisatzea zen. Horrela, ezohiko ekintza bat denez, herriarrak informatu ahalko genituzke”, adierazi du Jose Luis Navarro alkateak. EH Bilduk maniobraren aurkako mozioa aurkeztuko du hurrengo osoko bilkuran, eta “injerentzia” izan dela kritikatu du.

#### Gure Esku Dagoren eskerrak merkatariei

**ELORRIO** > Gure Esku Dagok galdeketa antolatuko du 2017an, eta horren gaituei aurre egiteko, zozketa bat egin du herriko merkatarien eta elkarten produktuekin. Hori dela-eta, eskerrak eman gura izan dizkie zozketan lagundu duten guztiei. Zozketa urriaren 2an izango da. Gainera, herrian bertan erosketak egiteko deia zabaldu dute: “Egin ditzagun erosketak etxean, hori ere gure esku dago eta”.

### IRITZIA

astekaria@anboto.org  
asteartea 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

**DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

ANBOTOK ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.



## DURANGALDEA IRUDITAN

Durangaldeko hamahiru herritako argazki sortak aurkeztu beharko dira irailaren 30a baino lehen. Informazio gehiago: [anboto.org](http://anboto.org) webgunean.

**SARIA 500€ Argazki sorta onenari**



## **> Berbaz**

Roman Bengoa | Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluko Lehendakaria | Berriz, 1959

# “Elikagaien sektorea ekologikoari begira dago”

Herritarrentzat zabalik du Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak egoitza

**> BERBAZ** Aitziber Basauri  
Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak (ENEK) Zornotzan duen egoitza jendaurrera zabaldu dute. Erakusketa autogidatua zabaldu dute bertan, “ekologikoa hitzak atzetik zer dakarren azaltzeko”. Ekoizpen eredu ere jasangarria izatea bermatu gura dute ENEKko lehendakari Roman Bengoak azaldu duenez.

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluaren (ENEK) egoitza da Jauregi Barria 2014tik. Egoitza publikoarentzat zabalik dago. Erakusketa trinkoa zabaldu dugu. Herritarrei begira, kontsumitzaileei begira, ‘ekologikoa’ hitzak atzetik zer dakarren azaltzeko informazio puntu bat da.

**Bertaratuko denak zer topatuko du?**

Hainbat elementuk osatutako erakusketa da, lurra ardatz moduan hartuta. Izan ere, nekazaritza ekologikoaren helburua lurraren emankortasunari eustea da. Gaur egun, nekazaritzak eta abeltzaintzak ez dute hori bermatzen, oso industrializatu daude. Gero eta lur emankor gutxiago dugu janaria ekoizteko, eta egiten den nekazaritzak ez du bermatzen hurrengo belaunaldietan lurren emankortasuna handitzea. Ortugintzan, adibidez, oso intentsiboa den manei konbentzional baten erruz lurrik gabeko nekazaritzara goaz: lehen ortuak zirenak orain plastikozko laminak dira.

**Berdina da abeltzaintzan?**

Abeltzaintza intentsiboa dagoen tokietan —Euskal Herrian baino gehiago kanpoan— abereak ez dira larretzen, eta erabilitako elikadura eta baliabide guztiak kanpotik datoz. Belarjaleak ez diren abereena (txerriak, oiloak...) oso produkzio intentsiboa da.

**Horri buelta eman gura dio nekazaritza ekologikoak?**

Bai. Gure ekoizpen eredu ere jasangarria izatea bermatu gura dugu, produktuaren merkaturatzean edota garraio sisteman sartu gabe. Hori da gure ardurua, horretan datza nekazaritza ekologikoa. Zein eredugaz ekoizten den janaria.


**Nekazaritza ekologikoa sustatzeko landu beharreko arloa da sentsibilizazioa?**

Lurraren %75 ura da, eta beste %25aren erdiak ez du balio elikagaiak ekoizteko —adibidez, muturreko klima delako—. Hala ere, emankorrak ez diren lurrek osatzen dute gelditzen zaigun %12 horren erdia (mendia, padurak...). Beraz, elikagaiak ekoizteko lur emankorrak %6 dira. Baina, azpiegitura handiak, hiriak... ditugu hor; lurragatiko lehia handia da, eta lur emankorrari eutsi ezean elikagaiak ekoizteko beste bide batzuk topatu beharko ditugu, naturalak izango ez direnak. Horretaz sentsibilizatu gura dugu, ikustarazi lur emankorrak finituak direla, bukatu daitezkeela. Horri buruzkoa da erakusketa. Eskola umeentzat unitate didaktikoak ere prestatu ditugu.

**Ikastetxeetara joko duzue?**

Gabonak aurretik probak egin gura ditugu inguruko eskoletan. Eta, udaberriari begira, Durangalde osora zabaldu gura genuke. Lurraren emankortasuna baloratzen ikasteko materiala da landutakoa; inguru-

“**Nekazaritza ekologikoaren helburua lurraren emankortasuna bermatzea da**”



ko ortugileren bat ere bisitatuko dute.

**Elikadura ekologikoaren eragileen kopurua %38 igo da 2013tik hona. Era berean, ekologikoan elikagaien industriaren fakturazioa %84 hazi da. Hala da, bai. 2013an bertako elikagaien industriak zazpi milioi euro fakturatu zituen ekologikoak; iaz, 13 milioi euro.**

**Datu esanguratsua da, ezta?**

Bai. Elikagaien sektorea ekologikoari begira dago. Hori erakusten dute datuok. Produktua transformatzeko beste modu bat eskatzen duten kontsumitzaileak badaudela ikusten dute. Merkatu bat ikusi dute.

**Jaten dugunaz gero eta kontzientzia handiagoa dugu?**

Gero eta ohikoagoa da elikagai ekologikoa bilatu edo aurkitzea. Baina, ez dugu argi kontsumitzailearen sentsibilizazio maila neurri berean hazi den. Kontsumitzaile batzuek aurrean jartzen zaiena erosten dute, eta

ekologikoa, ez dakit modan dagoen, baina, bada erakargarria une honetan. Badago larregi jakin gabe ekologikoa kontsumitzaileak animatzen denik, baina, orain arteko kontsumitzailea oso militantea izan da. Informazio asko eta bertoko ekoizpenagaz konpromisoa izan du, eta, bide hori jorratzen jarraitu gura dugu. Konprometitutako herritarrek gura ditugu, gero hori zenbakietara eramatea oso zaila den arren. Horretarako, orain arteko kontsumitzaileen laguntza behar dugu. Kontsumo taldeetan mugitzen diren askok ekologikoarekiko ez eze, bertako ekoizpenarekiko ardura ere

“**Kontsumitzaileek ekologikoa ekoiztea zer den jakin dezaten gura dugu**”

badu. Ekologikoa gura du, eta gainera bertokoa. Hori da guri interesatzen zaiguna. Nahasmen handia dago, eta kontsumitzaileek ekologikoa ekoiztea zer den jakin dezaten gura dugu. Horretara dator erakusketa.

**Lehenengo sektorearen bizi-raupenerako bidea da ekologikoa?**

Ez dakit. Argi duguna da lurraren emankortasuna mantendu gura badugu, eta lurra era naturalean ekoizten jarraitu, egungo produzitzeko modu konbentzionalak ez digula lagunduko. Ongarri sintetikoetan edo fitosanitarioetan oinarritutako nekazaritza eredurik ez dugu gura. Ingurumenean arazo asko sortu dira, eta osasunari dagokionez lagundu ez duela argi dugu.

**Zein da EHNEK-aren lana?**

Ekoizpen eredu honen ezagutza zabaltzea; atzean dagoen kultura ekologikoa zabaltzea. Kontrol eta zertifikazio lana ez eze sektorearen ordezkartza lana ere egiten dugu.



**JAIAK!** ELORRIO  
2016ko IRAILA

**FERIXA  
NAUSIKOAK  
2016 ELORRIO  
IRAILAK 3-11**

*Elorrixoko Ferixa Nausikoak:  
libreak, alaiak eta euskeraz!*



INDARKERIA  
SEXISTARIK, EZ!



Elorrioko udala



# ELORRIOKO JAIEN EGITARAUA

## IRAILAK 2, ostirala

**Egun osoan** aukeren azoka. Elizpean.

**18:00-21:00** indarkeria matxista saihesteko informazio-gunea. Plazan.

### Txosnagunea

**15:00** Gazte bazkaria.

**23:00** Bad Sound System Los Zopilotes Txirriaos.

## IRAILAK 3, larunbata

**12:00-14:00 / 17:00-20:00** Haur parkeak.

**12:30** Bitsaren Jaia. Esteibarlandan.

**16:00** Futbola. Elizalden. CD Elorrio - Busturia CD Elorrio B - Mutriku CD Elorrioko gazte mailakoak - Ariz CD Elorrioko kadeteak - Elgoibar

**17:30** Elorrioko III Artzain Txakur Txapelketa. Argiñeta Etorbidean.

**19:00** Kolpez Blai Perkushow. Plazan.

**19:00** Buruhandiak. Plazan.

**19:15** Egundo I - Kalez kale kantuan. Urarkan.

**20:00** Txupinazioa eta pregoia: Intxorta Asti Elkarteak. Plazan.

**20:05** Castellars Colla Castellera Marrecs de Salt. Plazan.

**23:00** Danborrada eta Txaranga Pasai. Plazan.

**23:00** Patrol Destroyers + Xatiro. Gaztetxean.

**00:20** Suzko zezena. Plazan.

**00:30** Fanfarre La Banda de la María. Urarkan.

### Txosnagunea

**11:00** Irrien lagunak. Txosnagunean.

**13:00** Bermuta+pintxoak.

**14:30** Elkartasun bazkaria.

**00:00** Bak Produkzioak.

**06:00** Txosnen itxierarekin, gaupaseroen argazkia.

## IRAILAK 4, igandea

**10:00** Abere eta nekazaritza azoka. Feriagunea.

**Goizean** Txistularien kalejira.

**13:00** Kalejira Asoc.cultural M'Lomp (Senegaleko musika eta dantza)

**18:00** Pilota partiduak. Hilario Azkarate frontoian.

**19:00** Ballet Argentino. Plazan.

**20:30** Kalejira plazatik. Mariatxi Azabache.

**22:00** Suzko zezena. Plazan.

**22:15** Mariatxi Azabache. Plazan.

### Txosnagunea

**13:00** Bermuta eta pintxoak

**21:00** Afari mexikarra.

## IRAILAK 5, astelehena

**14:00** Koadrilen arteko bazkaria eta tortilla lehiaketa. Aldatsekuan. \* Mahai eta aulki banaketa goizeko 9etatik aurrera.

**16:30** Artistas del Gremio. Animazioa. Aldatsekuan.

**18:00** Kalejira. Koadrilen jaitsiera. Diskoteka mugikorra.

**18:45** Koadrilen arteko jokoak. Disko festa: DJ Tirapu. Plazan.

**19:30** Aukeran Dantza Konpainia: Fusioak. Urarkan.

**22:15** Suzko zezena. Plazan.

**22:30** Cumbiam´Bero (Euskal kunbia). Urarkan.

### Txosnagunea

**21:00** Karaokea.

**23:00** Joxpa erromeria.

## IRAILAK 6, martitzena

**12:00-14:00 / 17:00-20:00** Haur parkeak.

**18:00** Belargune berriaren inaugurazioa CD Elorrioko neskak - Athletic / Elizalde.

**18:00** Buruhandiak. Plazan.

**19:00** Iskanbila - Umeentzako berbena. Urarkan.

### Txosnagunea

**20:30** Kafe berezia.

**21:00** Zine Forum.

## IRAILAK 7, eguaztena

**16:30** Umeentzako jolasak. Plazan.

**17:00** Ginkana. Plazan.

**17:00** Elorrioko VI Hiruko Torneo Solidarioa (Sahara) / Elizalde CD Elorrio- Athletic-Amorebieta

**18:00** Buruhandiak. Plazan.

**18:00** Txokolatada. Plazan.

**18:30** Umeentzako kale antzerkia: Ganso & Cia. Plazan.

### Txosnagunea

**18:00** Sukaldaritza tailerra. Tela, trapezio, malabareen... tailerra.

**21:00** Afari herrikoa (aurrez tiketak erosi txosnetan)

**22:00** Ekia, kontzertua.

## IRAILAK 8, eguena

**17:00** Nesken arteko areto-futboleko hiruko torneoa. Kiroldegian.

Elorrioko Buskantza - Betigol Zornotza - Eskoriatza Kirol Elkarteak

**22:00** Dead Bronco.

**22:00** LII. Idi proba txapelketa. Probalekuan.

### Txosnagunea

**19:00** Pintxopotea.

**19:30** Txalainak, kontzertua.

## IRAILAK 9, barikua

**12:00** Hildako jubilatuen omenezko meza. Sortzez Garbiaren Basilikan.

**13:00** Piskolabisa Elorrioko jubilatuentzat. Aldatsekuan.

**16:00-20:00** Haur parkeak eta txu-txu trenak. Urarkan.

**17:00** Areto-futbol partidua. Kiroldegian.

Elorrioko Buskantza B - Abadiñoko Txopoa Kirol Kluba.

**18:00** CD Elorrioko kadeteak - Eibar. Elizalden.

**18:30** Duo Ciclón. Aldatsekuan. Erromeria eta dantza txapelketa.

**19:00** Buskantza A mailakoen partidua. Kiroldegian.

**19:00** Buruhandiak. Urarkan.

**19:00** Errugbi partidua. Errugbi zelaian.

**19:30** Circortito - Kale animazioa. Urarkan.

**20:30** Fanfarre, Broken Brothers Brass Band. Urarkan.

**22:00** LII. Idi proba txapelketa. Probalekuan.

**22:15** Suzko zezena. Plazan.

**22:30** Diamante Negro, Mexikoko musika. Urarkan.

**00:00** Summum art. Gaztetxean.

### Txosnagunea

**12:00** Arropa truke azoka (behar ez duzun arropa ekarri eta trukatu)

**23:00** Doctor Deseo + Keu Agirretxea.

## IRAILAK 10, zapatua

**08:00** Sukalki eguna. Aldatsekuan. Zatoz mozorroa jantzita! Euria bada, talde bakoitzak bere aterpea ekarriko du.

**Goizean** CD Elorrioko gazte mailakoak - Gernika. Elizalden.

**Goizean** 3R azoka: gutxitu, berrerrabili eta birziklatu. Berrio-Otxoa.

**12:00-14:00 / 17:00-20:00** Haur parkeak.

**16:00** Buskantza gazte mailakoak - Durangoko Mendibeltz. Kiroldegian.

**17:00** Taberna Ibiltariaren euskal kantak. Aldatsekua-Urarka.

**17:30** Karrozen Jaitsiera: Tukatukada Batukada. Aldatsekuan.

**18:00** Txokolatada. Plazan.

**18:30** Disko Festa: Oihan Vega. Plazan.

**21:00** Kabaret Moc. Arriolan.

**22:00** LII. Idi proba txapelketa. Probalekuan.

**22:15** Suzko zezena. Plazan.

**22:30** Deabru Beltzak: Antzerkia, musika eta piroteknia. Plazan.

**22:45** Disko Festa: Oihan Vega. Plazatik.

**23:00** Grupo Araciel: boleroak, tangoak eta musika latinoak. Urarkan.

**23:00** Baghdad + Niña Coyote eta Chico Tornado. Gaztetxean.

### Txosnagunea

**18:30** Etxeko DJak.

**00:00** DJ Elepunto.

## IRAILAK 11, domeka

**Goizean** "Elorrioko kulturak dasta ditzagun" elkartasun jaialdia. Aterpe - San Pio.

**13:00** Herri kirolak. Plazan. Aizkolariak: Zubizarreta, Alex Chicón, Zelai III eta Bihurri.

Iparraldeko jokoak eta harri-jasotzea: Oskar eta Laura Basatxu aita-alabak.

**18:00** Bertso saioa. Casajaran. Igor Elortza, Jon Maia, Oihana Bartra eta Oihana Iguaran Gai jartzailea: Maite Berriozabal.

**20:00** Tio Teronen Semeak, Euskal dantza. Plazan.

**IRAILAK 12, astelehena**

LII. Idi proba txapelketa. Probalekuan. Sari banaketa.

**Galdaragintza**  
Forja artistikoa  
Enpresen mantentzea

**EZAGUN, S.L.**

Berriozabalbeitia, 10  
Tel.: 946 584 547 - Faxa: 946 582 888  
48230 ELORRIO (Bizkaia)  
ezagunsl@ezagunsl.e.telefonica.net

Eugenio Sánchez  
Agustín Urien

**SERICRATIA**  
**BOBIL**  
**TEXTIL**  
LORRIO

Berriozabalbeitia, 6  
Tel.: 946 820 532

**art-SHIRT**  
Kale KamiaK  
diSEiNU bakarrak  
Tel.: 658 756 522

**UNAI GARAY**

ITURGINTZA · BEROGINTZA · GASA

Kanpatorrosteta 7B, 3.A · 48200 Durango  
659 673 790 · unaigaray@yahoo.es





## Eraso sexisten aurka, begirale izateko deia egin du udalak

Segurtasun neurriak direla-eta, aurten ez da su artifizialik izango

► **JAIK** M.O. / J.G.

Udako oporren ostea jai giroz beteko dute aurten ere Elorrioren. Izan ere, irailaren 3tik 11ra, gustu guztietarako ekitaldiekin osatu dute Ferixa Nausikoetako jai egitaraua. Aurten, jaietako protagonistetako bat txupinazoa jaurtiko duen Intxorta Asti Taldea izango da.

Bestalde, asteon, udalak eraso sexisten aurkako dei berezia egin du prentsurrekoan. Norbere inguruan gertatu ahal diren eraso sexisten begirale izatera animatu ditu herritarrek, eta, gertatuz gero, zuzenean esku hartzeko eskatu du. 24 orduko telefono bat (688 641 996) ipiniko dute indarkeria matxista salatzen. Informazioa banatu dute komertzioetan eta herritarren artean. Idoia Buruaga alkateak esan du “eraso sexistak onartezinak” direla.

Bestalde, musika ez-sexista exijitu dute, eta koadrilen jokoak ez dira hainbeste indarra-ri lotuta egongo.

### **Txosnen aldaketa**

Aurtengo jaietako nobedadeetako bat txosnen eta barraken kokapena izango da. Aparkalekuan beharrez, plazako pilotalekura lekualdatuko dituzte txosnak. Barrakak, berriz, aparkalekuaren erdi batean jarriko dituzte. Aldaketa honen eraginez, plazako eszenatokia txosnaguneak ere erabiliko du.

### **Nobedadeetako bat txosnen eta barraken kokapena izango da**

### **Su artifizialik ez**

Su artifizialik ez da izango aurten. Segurtasun neurriak direla-eta, ekintza hau bertan behera utzi behar izan dutela aitortu du Buruagak. “Herrigunean ez dugu su artifizialak antolatzen aproposa izan daitekeen udal espaziorik”. Bertan behera gelditu den beste ekintzetako bat umeen danborrada izan da.

Ferixa Nausikoak jai herrikiak izatea nabarmendu du Buruagak. Horren isla dira sukalki eguna edo koadrilen jaitsiera. Musikak eta zuzeneko ekitaldiek ere protagonismo handia izango dute. Iñaki Larrañaga jai batzordeko kideak dioenez, aurten musika kalera ateratzea izan da asmoa. Hamabi ekintza, eszenatokian beharrez, kalean egingo dituzte.

Jaiak errespetuz, alai eta euskaraz bizitzeko deia egin dute.



Kale-animazioa indartu gura izan dute jaietan.



**Beristain**  
NEKAZAL TRESNAK

Nekazal, baserri, baso, lorazaintza edota eraikuntzarako tresnen salmenta, konponketa eta mantenua.

OIDOR BERRIOZABALBEITIA, 14 48230 ELORRIO BIZKAIA

☎ 946 231 803 ✉ info@beristain.eu

[www.beristain.eu](http://www.beristain.eu)





# FERRIXA NAUSIKOAK

TABERNAK  
eta JATETXEAK



**PORTALEKUA**

EUSKAL PRESOK  
PORTALEKURA

Erreka, 34  
Tel.: 946 58 31 77

ONDO PASA



JAIYETAN  
★ ZUBI ★

CAFETERIA

**IRIARRI**

"Enri"

Tel.: 946 583 119  
Elorrio (Bizkaia)

**Tanger**  
JATETXEA

Ibaikua, 8. ELORRIO  
Tel.: 946 820 052



**KOTXERO**  
JATETXEA



San Pio X, 42 ELORRIO  
Tel.: 94 623 17 97

**Guria**  
JATETXEA

EGUNEKO MENUAK  
HAINBAT MENU BEREZI  
OSPAKIZUNAK

Ibaikua, z/g.  
Tel.: 94 623 17 95  
ELORRIO / BIZKAIA



**ESKAERA  
ERRESERBAK  
94.655.02.66**

**Nizeto Urkizu, 37-39  
48230 ELORRIO**  
Bizkaia

f t G+ P

[www.xelaitaberna.com](http://www.xelaitaberna.com)

*Batzoki Elorrio*



Urarka, 13 behea · 946 855 656 · ELORRIO



Maialen Piña, Janire Garcia eta Naiara Garcia | Intxorta astialdi elkarteko kideak

# “Intxortako kanpamentua apur bat basatia da, lehengoan xarma du”

Intxorta elkarteko kideek jaurtiko dute aurtengo Ferixa Nausikoen hasierako txupinazoa

► **TXUPINAZOA** M. Onaindia  
Intxorta Asti Elkarteko es-  
kutik hasiko dira aurtengo Fe-

rixa Nausikoak. Euren bota-  
ko dute txupinazoa, eta ardura  
pozik hartu dute. 27 urte dara-

matza elkarteak lanean, herri-  
ko umeei aisialdi euskalduna  
eta naturazalea eskaintzen.

Maialen Piñak, Janire Garciak  
eta Naiara Garciak egin dute  
berba elkartearen izenean.



**Pozik zaudete txupinazoa botatzeko arduragaz?**

**M.P.:** Jaietako zinegotzia etorri zen berria ematera, eta pilo bat poztu ginen. Ardura handiz hartu dugu, eta txupinazo polit bat egin gura dugu, ganorazkoa.

**J.G.:** Uste dut oso pozik hartu dugula denok. Orain pare bat urte 25 urte egin zituen Intxortak, eta urteurrena izanda, uste genuen guri eman ahal zigutela txupinazoaren ardura. Ez genuen aukerarik eduki, eta orain, pozik gaude.

**Intxortako ume izandako begiraleak zarete. Zein oroitza-pen duzue?**

**M.P.:** Txikitari hasi, eta ez dakigu ze xarma mota duen, baina engantxatu eta begirale hasten zara. Begiraleak hurrekoak ziren, eta erreferente. Zelan lan egiten zuten eta ondo pasatzen zutela ikusten genuen.

**N.G.:** Umetan, egundoko esperientzia zela gogoratzen dut. Gainera, autonomo izaten ere laguntzen dizu, zure gauzak egin behar izaten dituzulako. Gaur egun, nire lana dela-eta, ezin izaten dut udalekuetara joan umeekin. Horregatik, administrazioaren ardura daukat nik.

**Orain, zenbat begirale zarete taldean?**

**M.P.:** Boluntario lez, urtean zehar hogeitabi ibiltzen gara, eta udan 30 edo 40ra heltzen gara. Udako kanpamentura 120 ume eraman ditugu, eta beraz,

begiraleak behar dira. Urtean zehar 70 bat ume eduki ditugu. Azken urteetan gorantza egin du kopuruak. Umeek euren artean egiten dute propaganda, gura barik, besteei ze ondo pasatu duten esanez eta anekdotak kontatuz.

**Eta zuen ustez zergatik izango da hori?**

**M.P.:** Intxortako kanpamentua apur bat basatia da, lehengoan xarma du. Udako kanpamentua mendian egiten dugu, zelai batean. Izan ere, natura errespetatzen eta maitatzen ikastea da gure helburuetako bat; euskara erabiltzea da helburu nagusia.

**Horrez gainera, herrian zelako ekarpena egiten duzue?**

**N.G.:** Beste elkartei ere laguntzen diegu. Adibidez, gaztete-koek umeekin tailerrak egin behar dituztenean gugaz jaritzen dira harremanetan, edota Erdella mendi taldeko irteera batzuetara joateko ere bai.

**“Kanpamentuetara 120 ume eraman ditugu, eta beraz, begiraleak behar dira”**

**“Ardura handiz hartu dugu, eta txupinazo polit bat egin gura dugu, ganorazkoa”**

**Eta maila pertsonalean ere, begirale izatea aberasgarria izango da...**

**J.G.:** Zure koadrilakoak ez diren beste gazte batzuekin harremanak egiteko aukera da, eta Elorrioko umeak ezagutzeko ere bai. Guztiok elkarrekin ondo pasatzea izaten da gure asmoa.

Elizburu, 46-48  
Tel.: 94 682 10 79  
Tel./Faxa: 94 682 00 50  
ELORRIO (Bizkaia)

**ALBAÑILERIA  
KURUTZONDO S.L.**

**zaindu**  
albaitaritza  
www.zaindu.net  
Ibarra, 13 Elorrio  
Tel.: 946 820 494

zaindu.albaitaritza

**ONTRACK**  
946 58 46 73 BERRIO-OTXOA 18, ELORRIO  
WWW.ONTRACKENGLISH.COM  
2016-17 MATRIKULA EPEA ZABALIK

**AROTZERIA  
OROKORREAN**

**Aratz Salazar Bilbao**  
Telf. 647 21 07 88  
arotxin@gmail.com  
ELORRIO 48230 Bizkaia



# Euskal produktuak nagusi Ferixa Nausikoetako urteroko azokan

Jaiei izena ematen dien azokak 10:00etan zabalduko ditu ateak

**> JAIK!** Maialen Zuazubiskar Irailaren 4an, 10:00etatik aurrera, abere, nekazarien produktu eta artisautza lanez gozatzeko aukera egongo da Ferixa Nausikoetako azokan.

Herriko txistulari taldeak musika jarrita, goiz osoan zehar giro paregabeaz gozatzeko aukera aproposa egongo da Elorrioko azokan zehar.

Goizean goizetik zabalduko den azokan, nekazarien 60 postu eta artisauen 14 jarriko dituzte. Ferialekuan hainbat produktu erosi eta dastatzeko aukera aparta egongo da Elorrioko, Durangaldeko eta Euskal Herriko nekazari eta artisauak atondutako erakusmahaietan.

**Etxeko produktuak nagusi**  
Azokan, Elorrion hazitako ortuariak, herrian bertan egindako gazta, ogi, pastel, txerriki, sagardo eta txakolina egongo dira eskuragai.

Irailaren 4ko ferian, elorriar saltzaileez gain, Durangaldeko lehen sektoreko hainbat eta hainbat langile ere beraien produktuak salduko dituzte. Esaterako, Zornotzako eztingileek, Mallabiko gozogileek, Berrizko nekazariak, Otxandio eta Abadiñoeko gaztagileek eta Iurretako eta Zornotzako sagardo eta txakolingileek ere Ferixa Nausikoetako azokan beraien produktuak kalera aterako di-

**Artisauen 14 postu eta nekazarien 60 egongo dira azokan**

**Auntengo azoka Elorrioko txistulariek girotuko dute**

tuzte.

Azokan egongo diren postuen erdiak Durangaldekoak izango diren arren, Bizkaiko beste hainbat herritatik, Gipuzkoatik, Arabatik, Nafarroatik eta Iparraldetik etorritako hainbat saltzailek ere parte hartuko dute aurtengo azokan.

**Artisau lanak**

Nekazarien postuez eta urtero egoten diren abereez gain, artisauak ere beraien tokia izango dute Elorrion.

Larruz, paperez zein egurrez egindako eskulanak, bitxiak, loreak eta panpinak erosteko aukera paregabea egongo da bertan.

Saltzaile eta produkturik gehienak Euskal Herrikoak izango diren arren, saskigintza lantzen duen Kantabriako eskulangile baten lanak ere topatzeko aukera egongo da azokan.



Ferixa Nausikoetako azoka.



Ferixa Nausikoetako azoka.



lazko kulturarteko jai.

# Elorrioko kultura aniztasuna ezagutzeko aukera irailaren 11n

Zaporeak proiektura bideratuko dute jaialdian ateratako dirua

**> JAIK!** Maialen Zuazubiskar Kainabera GKEak, urtero lez, Elkartasun jaialdia antolatuko du Elorrioko jaietako bigarren domekan, irailaren 11n. "Elorrioko kulturak dasta ditzagun" lemapean antolatzen den jaiak herriko etorkinekin jai giroan batu, eta herrian kultura ezberdinen berri ematea du helburu.

Txosnen kokaleku aldaketa dela-eta, aurten 20 urte beteko dituen gobernu kanpoko erakundeak, urteroko tokitik, plazako frontoitik, Arriola eta Kanpokale kaleen artera mugitu behar izan du festa.

**10 herrialde egongo dira ordezkatuta jaialdian**

Giro berezia duen jaialdiak herrialde desberdinetako musika eta ohiturak ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen du, eta denetariko janari eta edariak dastatzeko aukera ere bai.

Kainaberako kideek jakitera eman dutenez, bertan ateratako dirua Chiosen (Grezia) lanean

dabiltzan Zaporeak proiektuko boluntarioei bideratuko zaie bertako errefuxiatuei laguntza emateko.

**10 herrialde Elorrion**

Aurtengo jaialdian, Elorrion dauden etorkinek Euskal Herriko kultura gehiago ezagutzeko aukera izateaz gain, elorriarrek Argentina, Bolivia, Nikaragua, Kolonbia, Senegal, Mali, Uzbekistan, Portugal eta Indiako kulturak ezagutzeko aukera izango dute, hauek jartzen dituzten postuak ikusiz eta bertako jakiak dastatuz.

**NUKLEO**  
ileapaindegia  
Nizeto Urkizu, 14 behea  
ELORRIO  
Tel.: 946 582 996

**MAPFRE**  
Pili Ardanza - Jon Zubia  
30 urte baino gehiagoko esperientzia  
Bezero bakoitzaren perfileraren egokitzaren gara profesionaltasun eta diskrezioz  
Kanpokale, 10 ELORRIO  
Tel.: 94 658 24 48  
pardanz@mapfre.com  
www.mapfre.com/oficinas/4838

**AZKARGI GARBIKETAK**  
AUZO ELKARTE, GARAJE ETA OBRA OSTEO GARBIKETAK  
Goietan, 46 - 2 esk.  
ELORRIO  
Tel.: 615 791 215

**Erreka 20**  
arkitektura  
Silvia Urrutxi Arkarazo  
Errekakale 20, 2. A - Elorrio  
Tel 946 231 847 · 699 356 607 · 649 955 778





Leyre Balerdi kartel irabazleagaz Elorriko plazan.

## “Etxekoei baino ez nien esan kartela aurkeztuko nuela”

Leyre Balerdik bigarren irabazi du Elorriko jaietako kartel lehiaketa

**> KARTELA** Jone Guenetxea  
Leyre Balerdik irabazi du aurtengo Ferixa Nausikoetako kartel lehiaketa. Jaiaren hasierako txupinazoa islatzen duen kartelak irabazi du ANBOTOK ematen duen 500 euroko saria. 42 urteko arkitekto elorriar honek sari hau irabazten duen bigarren aldia da hau.

**Urtero parte hartzen duzu zure herriko kartel lehiaketan?**  
Koaderno batean ideia pila bat ditut apuntatuta, baina ez dut astirik izaten kartelak egiteko. Aurtengo, berriz, aurkeztea erabaki nuen, eta egutegian data apuntatu nuen. Azken momentuan aurkeztu nuen kartela. Elorrian lau aldiz aurkeztu dut kartelak bat.

**Zelan sortu duzu kartela?**  
Musika Eskolako ikaslea naizenez, iaz txupinazoa izan nintzen udaletxeko balkoian. Beti izan da emozioz betetako mo-

**“Iazko txupinazoan izan nintzen udaletxeko balkoian”**

mentu bat. Une hori han goian bizitzea berezia izan zen. Eta iazko txupinazotik sentsazio hori gelditu zitzaidan, serpentinaz bete.

**Irabaztea itxaroten zenuen?**  
Ez, aurkeztu egin dut eta etxekoei baino ez diet esan. Lagunei ez diet esaten. Nire ustez, ez da bidezkoa lagunei esan eta haiek botoa ematera joatea. Konpromiso bat da, eta beraz, nahiago dut horrela izatea.

**Teknikoki zelan osatu duzu kartela?**  
Bi argazki dira, mugikorrak aterata. Gero, kontraste eta koloreak ordenagailuaren bidez moldatu ditut.  
**Elorriotik kanpo kartel lehia-**

**ketaren batera aurkezteko asmorik duzu?**

Ez, baina aurtengo animatu naiz, lehiaketa asko daude eta. Uztailean eta abuztuan aurkezteko asmoa dut. Egia esan, asko gustatzen zait kartelak egitea.

**Lanbidez arkitektoa izanda, zure lanak lagunduko du kartelaren diseinuan.**

Diseinuak laguntzen du, baina ez da gauza bera. Nire lana planoak marraztea da, beraz hau oso desberdina da. Ideia bat irudi batean islatzea da kontua.

**Arraroa izango da kartela alde guztietan ikustea.**

Bai, arraroa izaten da jai egunean herri guztian zehar kartela ikustea.

**Inguruko lagunek eta familiak zer diotsue?**

Jakin barik batzuek nire kartela bozkatu zuten. Horrek poztasun handia ematen dit.

**Gonbidatu zuen Ikastetxea!**

**FUNDACIÓN EROSKI**  
zurekin

**ESKOLA OSASUNTUA**  
EROSKI FUNDAZIOA zurekin

Energia hazteko



Mila Royo | Danborradaren antolatzailea

# “Nire hankek irauten duten bitartean, hemen izango naiz, danborradan”

Mila Royok dioenez, Elorrioko Ferixa Nausikoetako danborrada antolatzeak “bizia” ematen dio



lazko danborradako argazkia.

**> MALLABIA** Jone Guenetxea Danborradaren arima da Mila Royo. Berak mugitzen ditu ume zein helduen danborradetako hari guztiak. Bi hamar-kada baino gehiago daramatza ekitaldi ezagun hau antolatzen. Danborradan eta sukalkietan gozatzen du gehien Ferixa Nausikoetan. Oporren bueltan entseguei ekingo diete, dena behar den moduan irten dadin.

**Umeen danborrada bertan behera utzi duzue. Zergatik?** Umetan desiatzen egoten dira 7 urte izateko danborradan parte hartu ahal izateko. Gero, nekatu egiten dira. Gurasoek eta umeek ere ez dute konpromisorik hartzen, eta entseguetara joatea beharrezkoa da. Ez dago seriotasunik, eta data txarrak dira. Espero dut ume eta gurasoek ulertzea entsegurik barik ez dagoela danborradarik. Hemendik bi urtera, urrezko ezteguetan, umeek eta helduek denok batera egitea gurako nuke.

**Eta helduen danborradan zenbat pertsonak hartuko duzte parte?** Kopuru zehatza bezperara arte ez dago jakiterik. Guztira 100 lagun inguru izango dira. Entseguak azkenengo astean egiten ditugu. Iturrizoro elkar-tekoek beti galdetzen didate zenbat jenderentzat prestatu behar duten afaria. “Okela xerrak eta entsalada ekarri, eta jendea datorren heinean prestatu”, erantzuten diet.

**Orain dela 48 urte, zelan hasi zineten danborrada antolatzen?** Elgetan umeen danborrada

antolatu genuen [Mila elgetarra da]. Don Felix abadea konbidau joan zen. Gu dantza taldean genbiltzan Elgetan, eta galdetu zigun ea danborradarako arropak eta trasteak nondik atera genituen. Horrela, lehenengo urtean Elorrioren ere umeena egin zen, eta ondoren helduena.

**Nondik eskuratu zenuten materiala?** Materiala alokatu egiten genuen. Maribel Letona zinego-

**“Urrezko ezteguak egiten ditugunean uztea pentsatzen hasiko naiz”**

**Parte-hartzaileen kopuru zehatza bezperara arte ez dago jakiterik”**



lazko danborradako argazkia.

tziak Pedro Eriz alkateari esan zion urtero-urtero ordaintzen ibili beharrean, urterik urte gauzak egiten hasi zitekeela. Elorrioko jostunek hainbat eta hainbat arropa egin dituzte.

**Udaletxeko balkoira igotzen zarete?**

Plazara goitik behera joaten gara. Ni baserritar jantzita joaten naiz. Nire semeari [zuzendaria da] makila hartu, eta jenerala, kantinera nagusia eta hirurok udaletxeko balkoira igotzen gara. Alkateari makila ematen diogu, eta harek zuzendariari botatzen dio. Tradizio hori ez dakit nondik irten den. Ni honetan hasi orduko ere horrela egiten zen.

**Zenbat urte daramatzazu danborrada antolatzen?** Hogeitaka urte izango dira. Ez nuke jakingo urte zahatza esaten.

**Hainbeste urtean antolatzaile legez, zer ematen dizu danborradak?**

Hau nire bizia da. Urrezko ezteguak egiten ditugunean uztea pentsatzen hasiko naiz. Baina nik neuk ez nuke inoiz utziko, eta beraz, nire hankek irauten duten artean hementxe izango naiz.

**Zer da jaietako onena?** Danborrada eta sukalkiak dira jaietako onena.

**ARKI  
TEK  
SAN**  
ARQUITECTURA ESTUDIO TECNICO  
ESTUDIO DE ARQUITECTURA TECNICA

WWW.ARKITEKSAN.COM  
622 745 419  
NIZETO URKIZU 12, ELORRIO  
INFO@ARKITEKSAN.COM

eva INSALUS KAS PEPSI RAM San Miguel

**BANAKETAK  
MIOTA S.L.**

Miota, 6 48230 ELORRIO Tel.: 94 623 18 92  
miotasl@hotmail.com

**Argiñeta**  
HIRIGINTZA ETA INMOBILIARIA BULEGOA  
Zure konfiantzazko inmobiliaria

Urarka, 1 - 48230 Elorrio  
Tel.: 946 820 041 - Faxa: 946 231 630  
argineta@euskalnet.net  
www.argineta.net



# JAIAK!

IZURTZA

2016ko IRAILA



Ondo pasatu Izurtzako jaietan!

  
IZURTZA  
UDALA



# IZURTZAKO JAIEN EGITARRAUA

## IRAILAK 2, barikua

**20:00** Txupinazoa eta triki-poteoa.

**23:00** Kontzertuak  
Gaztelekuan: PEPUTZ, THE ENFERMOS, PAUL & CIA, eta EXTERMINIO DE LA RAZA DEL MONO.

## IRAILAK 3, zapatua

**12:00** Munduko janari lehiaketa. Platerari dagozkion jantziak eramatea baloratuko da.

**13:30** Enkartelada.

**14:30** Janarien aurkezpena.

**15:00** Herri bazkaria.

**18:00** Bingoa.

## IRAILAK 4, domeka SANTA AGEDA

**10:00** Kalejira Jaizalerekin.

**11:00** Meza Santa Ageda basilizan.

**12:00** Mendigain dantza aldea.

**13:00** Bertsolariak: Iratxe Ibarra, Txaber Altube, eta Erika Lagoma.

**14:30** Herri bazkaria.

**16:00** Bakarrizketa Imanol Ituiñoren eskutik.

**17:00** Apustu herrikoia.

**17:30** Igel Txapelketa.

**18:30** Lotxo taldea.

## IRAILAK 8, eguena ANDRA MARI

**11:00** Meza Erdoitzako basilizan.

**12:00** Mendigain dantza taldea.

**16:00** Umeentzako jolasak.

**17:30** Bat, bi, hiru festa Goazen dantzara pailazoak.

## IRAILAK 9, barikua

**19:30** Tortilla txapelketa.

**21:00** Tortillen aurkezpena.

**21:30** Afari herrikoia.

**23:00** Gauargi erromeria.

## IRAILAK 10, zapatua

**9:30** XXV Mendi bizikleta martxa.

**19:00** XLIX Ezpatadantzari eguna.

**21:30** Afari herrikoia.

## IRAILAK 11, domeka SANTO TOMAS

**10:00** Kalejira Jaizale-rekin.

### SANTO TOMASEN

**11:00** Meza Santo Tomas basilizan.

**12:00** Mendigain dantza taldea.

**12:30** Gorriti eta bere abereak.

### HERRIKO PLAZA

**13:30** Jesus Uribitarteri omenaldia: 100 urte. Mendigain dantza taldea. Bertsolariak: Miren Amuriza eta Gorka Lazkano.

**14:00** Jubilatuen bazkaria.

**17:00** Mus txapelketa Argintxu Elkartean.

Izurtzako jaiak II. argazki lehiaketa.



**Azkonizaga**

Ortuzar, 1 · Izurtza (Bizkaia) · Tel./Faxa: 946 810 652  
azkonizaga@azkonizaga.com  
[www.azkonizaga.com](http://www.azkonizaga.com)



**GALDAKETA ETA  
SIDERURGIARAKO PRODUKTUAK**

Foseco Española, S.A.  
Elizalde azuza, 5 - 48213 Izurtza (Bizkaia)  
Tel. 94 620 25 00 / Faxe. 94 620 37 73  
115 Posta Kutxa - 48200 Durango (Bizkaia)

**VESUVIUS**



# Ezpatadantzari Eguna Izurtzako jaien barruan ospatuko dute aurten, hilaren 10ean

Durangaldeko hainbat dantza talde batuko dira plazan, arratsaldeko 19:00etatik aurrera

**> JAIK** Joseba Derteano Durangaldeko dantza taldeen eta Izurtzako Udalaren laguntzagaz, Gerediaga elkarteak Ezpatadantzari Egunaren 49. aldian antolatuko du Izurtzako jaietan,

irailaren 10ean. Azkenengoz 2009an hartu zuen Izurtzak Ezpatadantzari Eguna.

Urtero antolatzen den ekitaldian helburu nagusia Durangaldekoak diren dantzen

tradizioari eustea izaten da. Ohi moduan, Izurtzan ere Durangaldeko hainbat herritako taldeak batuko dira Dantzari Dantza eta Sokadantza dantzatzeko. 18:30ean kalejiran irtengo dira

Azkonizaga ingurutik plazaraino. Dantza saioa 19:00etan hasiko da. Ondoren, herritar denei

**19:00etatik aurrera askotariko dantzak eskainiko dituzte herriguneko plazan**

irekita dagoen afarian batuko dira. Firin Faran taldearen erromeriagaz amaituko dute eguna.

Aurten Mendigain Dantza taldeko hainbat kide omenduko dituzte euren ibilbidea Izurtzako dantza taldean egin dutelako eta oraindik ere jarraitzen dutelako: Juan Antonio Aroma, Alberto Garate, Izar Iriondo, Pili Arrazola, Maite Zubillaga eta Imma Gorrotxategi izango dira omenduak.



Datorren urtean 50. urteurrena izango du Ezpatadantzari Egunak.

**100 euro jasoko ditu jaietako argazkirik onenak**

**LEHIAKETA** J.D.

Izurtzako jaietako argazki lehiaketaren bigarren aldia egingo dute aurten. Hiru sari banatuko dituzte: irabazleak 100 euro jasoko ditu; bigarrenak 75 euro, eta hirugarrenak 50 euro.

Parte-hartzaile bakoitzak hiru argazki aurkeztu ditzake gehienez, irailaren 12tik 30era bitartean, Izurtzako udal-txean. Gutunazalean, argazkiekin batera, egileak hainbat datu ere gehitu beharko ditu: ezizena zein benetako izen-deiturak, adina, telefonoa eta posta elektronikoa. Izurtzako kultura batzordeak eta jai batzordeak osatuko dute epaimahaia, eta urriaren lehenengo astean batuko dira lanak baloratzeko.

Lehiaketako oinarri guztiak [www.izurtza.net](http://www.izurtza.net)-en eskuratu daitezke.

## Munduko janarien lehiaketa, nobedadea

Platerak ez ezik mozorroak ere puntuatuko dira

**> LEHIAKETA** J.D.

Aurtengo jaietako nobedadeetako bat zapatu honetarako prestatu duten munduko janarien lehiaketa izango da. Parte-hartzaileek gura duten platera prestatu ahal izango dute, eta irabazleak aukeratzeko orduan, sukaldaritzako dohainak ez ezik, plater horren jatorriari lotutako disfrazak eta atrezzoak ere kontuan hartuko da.

Orain arte, urtero, gisatu, paella edo marmitako lehiaketak txandatu izan dituzte. Aurten mundu osoko gastronomiari atea irekita aire berri bat eman gura diote ekimenari. Bigarren helburu bat errazten

du erabaki horrek; partaideek aukera handiagoa izango dute mozorrotzeko. Izan ere, irabazlea erabakitzerako orduan plater bakoitzaren kulturari loturako disfrazak eta dekorazioa ere aintzat hartuko dira.

**Sukaldariak epaimahai**

Epaimahaia parte-hartzaileek eurek osatuko dutela da lehiaketaren beste kuriositateetako bat. Platerak koinatu ondoren —12:00etan hasita— mahai bakoitzeko sukaldari bik besteek prestatu dutena probatu, eta janaria, disfrazak eta dekorazioa baloratuta hiru onenak aukeratu dituzte.

## Lagoma, Altube eta Ibarra bertsolariak Santa Agedan

**> JAIK** J.D.

Urteroko ohiturari eutsiz, domeka honetan herrigunetik Santa Ageda ermita ingurura tokialdatuko da jaiak. Ohiko kalejira, meza eta dantza saioaren ostean, Iratxe Ibarra, Txaber Altube eta Erika Lagoma ber-

tsolariak saioa eskainiko dute, 13:00etatik aurrera. Bazkalostean, berriz, Imanol Ituiñoren eta bere bakarrizketaren txanda izango da. Gazteek urtero antolatzen duten apustu herrikoia ere ez da faltako Santa Agenda egunean.



Jende asko batzen da urtero Santa Agedan, eta bertan bazkaltzeko ohitura dago.

**Musika eta askotariko ekimenak jaiak osatzeko**

**> JAIK** J.D.

Gaur, jaietako lehenengo egunean, musika kontzertuak antolatu dituzte gaztelekuan: Peputz, The Enfermos, Paul & Cia eta Exterminio de la raza del mono taldeek zuzenekoak eskainiko dituzte 23:00etatik aurrera. Ohiko erromeriak ere ez dira faltako Lotxo eta Gaurgi taldeen eskutik.

Irailaren 11n, 13:30ean, aurten 100 urte egin dituen Jesus Uriarte omenduko dute. Uriarte Eusko Gudarosteko gudarria izan zen Gerra Zibilean. Omenaldiaren ostean, Miren Amurizak eta Gorka Lazkanok bertso saioa eskainiko dute.

**arbere**  
Aterik ate gasoleo banaketa

946 20 40 45  
630 05 89 10  
[www.arbere.com](http://www.arbere.com)

**IZURTZAKO HERRIKO TABERNA**

URDAIAZPIKOA Tel.: 946 202 024  
SALAMANCAKO TXORIZOA IZURTZA  
SOLOMO IBERIKOA  
GAZTA

**RECUPERACIONES Y TROQUELADOS, S.A.L.**

Eleizalde auzoa, 47  
Tel./Faxa: 94 681 89 79  
48213 IZURTZA  
[info@recytro.net](mailto:info@recytro.net)  
[www.recytro.net](http://www.recytro.net)





# JATETXE GIDA

ÑAM!



## KANBIO JATETXEA

San Migel Dueda auzoa  
AMOREBIETA-ETXANO

Tel.: 946 730 033

Aste bitarteko menua, asteburuko menua,  
menu berezia eta karta.

ÑAM!



## MENU BEREZIA

Sarrerakoak (bi aukeran)

Entsalada

Patata frijituak

Zatitutako txuleta errea

Postrea

Ogia eta edaria

**60€**  
bikoteko  
(BEZa barne)



## JULIANTXU

Iturriza, 2 BERRIZ

Tel.: 946 824 077

Karta. Txuleta errea.

75 lagunentzako jangela.

ÑAM!



## LA GIPUZKOANA JATETXEA

Bixente Kapanaga, 2 - IURRETA

Tel.: 946 811 005

Aste bitarteko menua. Afariak ostiral eta  
larunbatean. Berezitasuna, "arrautza  
apurtuak". Menu bereziak enkarguz.

ÑAM!



## PLATERUENA Kafe Antzokia

Landako etorbidea, 4 DURANGO

Tel.: 946 030 300

Egunero zabalik. Menu bereziak, egunekoak,  
taldeentzakoak eta ospakizunak.

[www.plateruena.eus](http://www.plateruena.eus)

ÑAM!



## OLAJAUREGI JATETXEA

Kurutziaga Kalea, 52 DURANGO

Tel.: 946 200 864

Eguneko menuak, bereziak, taldeentzakoak  
eta ospakizunak. Egunero zabalik.

[www.olajauregi-jatetxea.com](http://www.olajauregi-jatetxea.com)



**Profesional  
onenak zure  
zerbitzura!**



**Shinova** | Ander Cabello, Gabriel de la Rosa, Erlantz Prieto, Dani del Valle eta Joshua Froufe.

## “Mezuari garrantzi handiagoa eman diogu kanta berri hauetan”

Estatuko hainbat jaialditan aritu eta gero, irailaren 16an aurkeztuko du Shinovak ‘Volver’ diskoa.

### ➤ **MUSIKA** Itsaso Esteban

Asteburu honetan Burgos, Guadalajara eta Murtziako musika jaialdietan joko du Shinova Durangaldeko boskoteak. Hitzordu horietarako bidaia abiatu orduko erantzun die ANBOTOren galderi Erlantz Prieto gitarristak.

**Zelan joan da uda? Besteak beste, Burgoško Somorama jaialdian jo duzue, eta plaza lepo bete da...**

Sonoraman jotzea gauza oso berezia izan da, izugarria. Bizitza osoan gogoratuko dugun momentua, dudarik gabe. Estatuan jotzeko dagoen lekurik berezienera bat da Burgoško Trigo plaza hori.

**Asteburu honetan ere bidaiari ekingo diozue. Zer suposatzen du Ebrovision edo Gigante jaialdietan jotzeak?**

Ohore bat da guretzat jaialdi horietan aritzea. Bi jaialdien kartelak kalitate handiko taldez beteta daude, eta asko pozten gaitu gu kontuan hartzeak.

**Irailaren 16an aurkeztuko duzue disko berria. Zelakoa izango da disko berriaren aurkezpen bira?**

Datak ixten ari gara oraindik, baina Estatu osoan zehar jotzen arituko gara.

**Durangaldean ere entzun ahalko ditugu datozen asteetan Shinovaren disko berriko kantak?**

Oraindik ez dakigu noiz izango dugun etxetik hurbil jotzeko aukera, baina gogo handia dugu, izan ere, oso berezia baita gure jendearen aurrean jotzea. Oraingoz aurreratu dezakeguna da Bilboko Fnac dendaren 10. urteurrenean, irailaren 16an, kalean egingo dituzten kontzertuetan arituko garela.

**‘Volver’ izenburua ipini diozue disko berriari. Nora “bueltatzen” zarete disko berriagaz? Zergatik aukeratu duzue izenburu hori?**

Hainbat arrazoigatik jarri diogu izen hori disko berriari, baina, batez ere, diskoaren letretan zabaltzen dugun mezua laburbiltzen duen kontzeptua delako aukeratu dugu. Honakoa da disko hainbat letratan ahotan darabilgun ideia: sarritan, atzera begiratu eta bizitako zenbait momentutara itzultzea nahiko genuke denok, une haietan egindako akatsak konpontzeko asmoagaz, baina, kontuan izan behar dugu gertaera horiek guztiek ekarri gaituztela gaur egun gauden lekura. ‘Volver’ disko letrak emozioz beteriko une horiei buruzkoak dira.

**Shinova taldearen orain arteko ibilbideagaz alderatuz, zer berritasun dakar ‘Volver’ diskoak?**

Disko berria da talde gisa bizitzen ari garen unearen adierazgarri onena. *Single* baten ohiko egiturara egokitu beharrean, letren bitartez zabalduko dugun mezuari garrantzi handiagoa eman diogu kanta berri hauek konposatzean. Bestalde, soinuaren eboluzio bat bizi izan

“

*Oso harrera beroa egin die jendeak disko berriko bi aurrerapen kantei”*

“

*Sonoraman jotzea gauza oso berezia izan da: bizi osoan gogoratuko dugu”*

“

*Disko berria da bizitzen ari garen momentuaren adierazgarri onena”*

dugu, José Caballeroren laguntzagaz. Beragaz grabatu genuen *Ana y el artista temerario* Neo Music Box estudioan, eta oso pozik gelditu ginen, baina disko berri honetan hura hobetzea lortu du.

**Orain arteko zuen sorkuntzen zein ezaugarri eutsi diozue disko berriari? ‘Ana y el artista temerario’ aurreko diskoan hartu zenuten doinu lasaigoetarako bidean jarraitzen duzue?**

Aurreko diskoan hartutako bide lasaigo horretan jarraitzen dugu, baina disko hartan egindako proposamena pauso bat haratago eramanez. Shinova taldea hasi zenetik ez dugu diskoen estiloa behin ere errepikatu. Izan ere, gauza berriak probatzea gustatzen zaigu.

**Disko berriko bi kanta aurreratu dituzue sare sozialetan. Zelako sentsazioak dituzue jendeak egin dizuen harreragaz?**

Oso harrera beroa egin die jendeak bi aurrerapen kantei. Sekula ez dugu izan bi kantu hauekin izan dugunaren pareko harrerarik, eta asko eskertzen dugu.

**Miresten duzuen Second taldeko musikariak ‘Doce meses’ kanta goraiatu dute. Zelan hartu duzue aipamen hori?**

Ustekabe oso atsegina izan da, izan ere, oso gustuko dugun taldea da.



Shinova Durangaldeko boskotea, Sonorama musika jaialdiko emanaldian jotzen. Marisa Contreras





2003. urtean hasi ziren 'Egundo i' taldeko kideak elkarregaz kantatzen.

## Elorrioko kaleetan zehar kantatuko dute 'Egundo i' taldekoek, jaietan

Bihar, 19:15ean, Urarkan hasita, kalez kale arituko da 'Egundo i' kantuan

### > MUSIKA | E.

Elorrioko Ferixa Nausiko jaien barruan eskainiko du 'Egundo i' taldeak emanaldia, irailaren 3an. 19:15ean Urarka kalean hasita, herrian zehar ibiliko dira kantuan. "Euskal kantutegiko abestiak —denok ezagutzen ditugunak—, Creedence taldearen bertsiio bat eta geuk euskaratu-

tako Irlandako kanta tradizional bat ere eskaintzen ditugu emanaldian", azaldu du Mariaje Alfaro taldekideak.

2003. urtetik Ramon Castillo taldekidearen etxean elkartzen dira eguazteneko, lagunartean kantatu eta jan-edana partekatuzeko. Hain zuzen ere, Castillok Bernardo Atxagaren *Ez dut*

*egundo ikusi* testua oinarri hartuta egin zuen kantatik dator taldearen 'Egundo i' izena.

40 eta 60 urte arteko durangarrak dira taldekide gehienak, baina elorriar bat ere badago taldean. Gainera, Euskal Herri-  
ra etortzen denetan edo atzerri-  
ra bidaiari doazenetan beraiekin elkartzen den Menorcako

kide bat ere badu 'Egundo i'-k. Izan ere, musikarekiko eta bidaiatzeko zaletasuna uztartzen dituzte talde horretan, eta urtero joaten dira atzerri-  
ra, bidaiari zutenetan edo atzerri-  
ra bidaiari doazenetan beraiekin elkartzen den Menorcako

Bihar Elorrioren zein beste noizbait kalean beraien emanaldi batez gain, egiten duten kantuzale guztiak animatu dituzte eurekin kantatzera.

### GEURE DURANGALDEA

**FERNAN RUIZ**

Euskaltzalea



### Urrin dago 'Próxima b'

Etxe ondoko ortuko gerizpean eserita, zirriborroa amaitzean. Zer marrazten ari den galdetu dio amamak lekak ureztatzen dituen bitartean. Erantzunik ez eta hurreratu zaionean, neskatilak esan dio zalantzak dituela propulsioko motorraz eta erregaiak, urte luzeetako bidaia egin behar duela eta. Trajea josten eta kaskoa prestatzen dabil. Espazio-ontzi itxura hartu dio amamak eta nora joateko den galdetu dio. Isilunea.

Duela egun batzuk, berri ona izan dugu: Lurraren antzeko bizi-baldintzak izan litzakeen planeta aurkitu dute astronomoek. *Próxima b* izena eman diote eta eguzki-sistematik kanpoko orbita batean dabil jiraka. NASAko astrofisikariek baino poz handiagoa hartu du gure neskatilak, eta han eraiki gura du mundu berria, denok berdinak izango garen mundua. Gazteegia bada ere, iritzi ezkorra baitu gure Lur planeta ederraren kudeatzaileei buruz. Izan ere, entzungor egiten dizkiegu erraietatik bidaltzen ari zaizkigun mezu lazgarriak.

Bizi zantzurik badago, estralurtarrak izango direla argitu dio amamak, mangera eskuan duela. *Próxima b* hori hango izaki bizidunek osatutako mundua izanik, ez dela bidezkoa gure planetako gizonen zabarkeria hara erotea. Mangera batu, tomateak esku-zarean sartu eta badoa amama soro ertzeko zidorretik atartantz, pentsakor, espazioaz eta denboraz hausnartzen, bere esku zimurrei begira. Neskatila 40 bilioi kilometrotara dugun planeta berriko izakiei forma ematen geratu da gerizpean eserita, pentsakor. Trajea, erregaiak eta distantzia ez dira, jadanik, garrantzitsuak.

### > ANTZERKIA | Esteban

Udako geldialdiaren ostean, kabaret ikuskizun batez zabalduko dituzte Elorrioko Arriola antzokiko ateak. Los Quintana taldeak irailaren 10ean 21:00etan eskainiko duen *Voc, un auténtico vodevil* ikuskizunagaz, hain zuzen ere.

Antzerkia, musika, transformismoa eta umorea uztartzen ditu Los Quintana taldeak hamasei urtetik gorako ikusleei zuzenduriko ikuskizun horretan. 2014. urtean Madrilen aurkeztu zuten *Voc, un auténtico vodevil* ikuskizunak David Quintana du zuzendari, eta zazpi aktorek dihardute 90 minutuz oiholtzan kantuan eta dantzaz.

## Kabaret ikuskizun batez hasiko dute antzerki ikasturtea Arriolan

Irailaren 10ean hasiko dute ikasturte berriko kultur programazioa Elorrioren

David eta Fernando Quintana anaia argentinarrek 1993an sortu zuten Los Quintana taldea. Beraien herrialdean jardun ziren hamar urtez, Txilen ibili ziren gero lanean, eta 2011n iritsi ziren Madrilerara.

Quintana anaien kabaretagaz hasiko den Elorrioko antzerki denboraldi berriaren, abendura bitartean, Elorrioko antzokian izango den programazioa ikus-

gai dago antzokiaren webgunean. Hain zuzen ere, hasiko den bezala amaituko da ikasturteko lehenengo lauhileko programazioa, kabaret ikuskizun batez: *Nano Cabaret* obra eskainiko du Yllana taldeak, abenduaren 23an, 22:00etan.

Ikuslego helduari zuzenduriko beste sei antzerki emanaldi hartuko ditu ikasturteko lehenengo lauhilekoan Arriolak:

Euskal Herriko Khea Ziater, Atx, Paraiso edo Ados taldeen antzezanak, adibidez. Gainera, Il Maquinario Teatro galiziarren *Perplejo*, Álvaro Tatok sorturiko *Comedia Multimedia*, edo Andaluziako Histrión Teatro taldearen *Arizona* lanak ere izango dira ikusgai.

Bestalde, umeentzako bost antzezan ere eskainiko dituzte irailetik abendura arte.

**Tierras del Cid** Burgos

Gaztelako musika tradizionalaren VIII. jaialdia  
Irailaren 10ean, 20:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021  
sanagustin@durango-udala.net

San Agustín KULTUR GUINEA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus  
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

**JAT ETX EA**

EGUNEKO MENUA  
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

IRAILAK 10  
20:30ean  
DURANGO  
REGGAE JAIALDIA

IRAILAK 17  
22:00etan  
HARCORE-PUNK  
GAUA  
KONTZERTUA

URRIAK 1  
22:30ean  
DAVID  
GUAPO  
BAKARRIZKETA



**Oskar Astarloa** | Durango, 1974 // **Kemen Goitiandia** | Zornotza, 1980

Lehior Elorriaga

## “Lehenengo seietan sailkatu eta play off-ak jokatzera da helburua”

Oskar Astarloak Kemen Goitiandiaren laguntza izango du aurten, eta helburu ilusionagarria jarri dute

**> ERRUGBIA** Joseba Derteano Oskar Astarloaren eta Kemen Goitiandiaren bideak bigarrenez elkartu dira Durango Rugby Taldean. 2014an Astarloa Gernika taldeko entrenatzaile nagusia zela, Goitiandia bere bigarrena izan zen. Aurten, zornotzara DRTra batu ostean, formula bera errepikatuko dute. Iazko denboraldiaz alderatuta, salto kualitatibo bat eman gura dute, eta horretarako oinarriak lantzen dabiltza; esaterako, ia hilabete aurreratu dute aurrendenboraldi hasiera. Proiektua sendotzerako orduan beste osagai bat ere azpimarratu beharra dago: DRTk eta Elorrio rugby taldeak jokalariz elkar elikatzeak adostutako akordioa. Ilusioa pizten duten osagaik dira, inondik ere.

**Kemen DRTra batzea zure proposamena izan da, Oskar?**  
Oskar Astarloa: Nik komentatu nuen Kemen ezagutzen nuela, Gernikako bere etapa amaitu zela sentitzen zuela eta bera ekartzea posible bazen ederto legokeela.

**Kemen, Gernikako zikloa amaitu zen sentsazioa zeneukan?**  
Kemen Goitiandia: Gauzak beste era batera egiteko proposa-

menak egin nituen Gernikan, eta ikuspuntu desberdinak genituela ikusi nuen. Berez, ez nuen Gernika utzi hona etortzeko; baizik hura uzteak ate berriak zabaldu zizkidan beste edozein bide hartzeko.

**Batak bestea ondo ezagutzen duzue, ezta?**

O.A.: Bai. Hainbat urtetan iturri beretik edan dugu errugbia ulertzerako orduan. Esaterako, Euskadiko selekzioan Jeremy Spencer entrenatzailea ezagutu genuen, eta haren filosofia eta lan egiteko modua atsegin genituen. Zer egin eta zelan jokatu azaltzen zigan, eta hori baino garrantzitsuagoa zena: zergatik egin horrela. Bai, Kemenek eta biok antzerako kontzeptuak ditugu, eta arin heltzen gara adostasunera.

**Kemen, zuk lehenengoz irten duzu zure ‘habitat’ naturala zen Gernikatik. Orain arte zelan aurkitu zara Durangon?**

K.G.: Oso pozik, gustura eta lanerako gogoz. Arazorik barik moldatu naiz taldera. Egia da Gernikan baino ez naizela aritu orain arte, baina beti izan dut hartuemana inguruko jokalariek askogaz. Euskadiko selekzioagaz arituz edo Europako txapelketak jokatuz hainbat entre-

**“**  
**K.G.: “Sortzen ari garen dinamika finkatzen badugu, play off-a horren ondorioa izango da”**

natzaile eta jokalariek ere ezagutu ditut. Horrek aberastu egiten zaitu.

**Harrobian oinarritzen den klub batera etorri zara.**

K.G.: Bai. Gernikan ere ikusten nuen lanetako bat horixe zen: etxeko jendea trebatzen lan egin beharra zegoela, orain ereindakoa etorkizunean jaso ahal izateko. DRTn jende gazte asko dabil, gogotsu, ikasteko gogoz eta horrek erraztu egiten du gure lana.

**Iaz amets bat bizi izatetik zetorren taldea Ines Etxegibelezag igoerako play off-a jokatu ostean. Ikuspuntu horretatik espero baino denboraldi apalagoa izan zen?**

O.A.: Inesena eta gurea ez zen talde berdina. Esperientziadun hainbat jokalariek beterano falta ziren. Haiek ematen zutena be-

rreskuratzea kostatu egiten da eta denbora eskatzen du. Gazteei edo beste jokalariek batzuei aukera emateko baliatu genuen. Aurten iazko taldeari eusten diogu, eta beheko taldetik hiru jokalariek iragoz, nahiko maila onekoak.

**Bestelako nobedaderik bai aurten?**

O.A.: Aurrendenboraldia abuztuaren 24tik abuztuaren 1era aurreratu dugu.

**Ia hilabete aurreratu duzue denboraldi hasiera? Aldaketa handia da.**

K.G.: Azkenean liga irailaren 18an hasten da, eta arraroa dena ez da abuztuaren 1ean hasia; normala ez zena abuztuaren 24an hasia zen.

O.A.: Iaz abuztuaren 21ean hasi ginen. Aste bat entrenatu, Santanderren kontrako prestakuntza partidua jokatu, eta liga hasiera.

K.G.: Hori da normala ez zena. Azkenean mentalitatea apur bat aldatzea da. Profesionaltasun kontua da. Ez diruari lotutako profesionaltasuna, baizik kirolari berari lotutakoa. Horrek denboraldi fisikoki hobeto ekiteko modua ekarriko du. Bestelakoan, kontzeptuak eta asimilatzeak denbora zein heldutasun puntu bat eskatzen

ditu, eta uste dut, alde horretatik, denboraldia aurrera doan heinean joango garelako hobekuntzak nabaritzen.

**Jokalariek zelan hartu dute erabakia?**

O.A.: Ez dugu arazorik izan. Entrenamenduak etorri ahal zirenekin hasia erabaki genuen. Lau batzen baginen, ba, lau. Baina 17-25 artean batu izan gara. Elorrioko errugbi taldeko batzuk ere etorri dira.

**Zein da DRTren eta Elorrioren arteko hartuemana gaur egun?**

O.A.: Orain hilabete inguru akordioa sinatu zuten klub biek. Talde bietako fitxa eduki daiteke batean zein bestean jokatzeko. Horrela, esaterako, Elorriotik etorritako batek DRTgaz sei partidua jokatzeko baditu DRTko lehen taldera pasatuko da.

K.G.: Aukera asko zabalitzen dituzte. Esaterako, gure taldean minutu gutxi duten jokalariek Elorrioren gehiago jokatzeko aukera izan dezakete erregularitasun batez. Hartuemana norabide bietakoa da.

**Kontatu didazuen guztiak ilusioa pizteko hainbat osagai dituzte. Zein izango da gizonen lehen taldearen helburua aurten?**

O.A.: Ohorezko B mailan lehenengo seien artean sailkatzea eta play off-a jokatzera da helburua.

K.G.: Helburu moduan ondo ikusten dut. Horrek erakusten du dinamika aldaketa bat dagoela. Azterketa batean hamar ateratzea helburu jarrita zortzi bat lortzen bada, jomuga sei bat baldin bada ez gainditzeko arriskua dago. Horri lotuta beste helburu bat dugu: sortzen gabiltzan dinamika berri hau finkatzea. Eta hori lortzen badugu, play off postua lan horren ondorioa izango da.

**Kemen, iaztik zure herrikideek zuk sekula izan ez zenuen aukera dute Zornotzan bertan errugbian aritzeko Urgozo taldearen bidez.**

K.G.: Errugbi talde berriak sortzea eta jende ekintzailea aurkitzea pozgarria da beti. Ni oraindik Gernikan nengoela galdetu zidaten entrenatzaile aritzeko... esku bat botatzeko prest egongo naiz beti. Inguruan, Durangaldean, beste talde bat izatea aberasgarria da. Gure artean hartuemana ona mantentzen badugu, errugbiarentzat ona izango da.



# Berrizburun gaztetxoek BTT proba egingo dute domekan 150 bat neska-mutikogaz

Iaz legez Iñaki Lejarretaren BTT zirkuituko zati bat baliatuko dute Berrizburuko ibilbideak egiteko



Iazko lehen aldiko proba bateko hasiera. Guztira 135 txirrindulari batu ziren.

**> TXIRRINDULARITZA** J.D. Iaz hasitako bideari jarraipena emanez, Berriz Bizikletari Elkartek Berrizko Eskolarteko Proba antolatuko du domeka honetan Berrizburun. 14 urtera arteko 150 bat gaztetxo batzea

espero dute, iaz baino gehiago. Neskatoak eta mutikoak elkarrekin arituko dira. Horrelako probetan “gero eta neska gehiago” batzen direla azpimarratu du Joseba Arregi Berriz Bizikletari Elkarteko kideak eta

“oso maila altuan” ibiltzen dira: “Eurek baino urtebete gazteagoentzako diren mailetan aritzeko aukera dute, baina gehienak adin berekoekin ibiltzen dira, eta askok aurreneko hamarren artean amaitzen dute”.

Ez da proba lehiakorra. Txirrindularitzarako zaletasuna sustatzea eta gaztetxoei bizikletan trebatzeko aukerak eskaintzea da probaren helburua. Ondorioz, garaikurrak beharrezko orogarrak banatzen dituzte.

Benjaminetatik (2006-07 urteetan jaiotakoak) haur kategorian (2002an jaiotakoak) artekoak adinka banatuta irtengo dira. 11:00etan hasiko da lehenengo proba, eta bakoitzaren luzera desberdina izango da adinaren arabera. Horretarako, Berrizburu inguruan zirkuitu bi antolatu dituzte.

Proben ostean, gaztetxoek abilezia lantzeko ginkana bat antolatuko dute, eta ibilbide horretako zati bat Iñaki Lejarreta BTT zirkuitutik joango da.

Proba antolatzeak jende askoren lana eskatzen du, eta, alde horretatik, Zaldibarko Lagunartea elkarteko gurasoen partetik jasotako laguntza gogoratu du Orland Isoird alkateak probaren aurkezpen ekitaldian.

## ADITUAREN TXOKOA

**IÑAKI IZA**

Pilotari ohia



### Elezkanoren erreibindikazioa

Pilotariontzat uda, besteak beste, erreibindikaziorako garaia da. Aurtengoa izen propio ugari uzten ari da: Irujo, Berasaluze II, Larunbe, Zabaleta, Olaizola II... Baina izen horietatik Elezkanoren II.a nabarmendu nahiko nuke.

Irujoren egoera kezkarriak bultzatuta (guztion nahia da berriz ere kantxetan ikustea), Aspe enpresa Asegarcetik aurrelari bat fitxatu beharrezko zegoen, eta Danel aukeratu zuten. Horrelako erabakiak ez dira errazak izaten, batez ere pilotarientzat, baina erabaki errentagarria izan daitekeela uste dut, bai pilotarientzat berarentzat eta baita enpresarentzat ere. Danelek bere enpresa berriarekin debutatu eta egun gutxira, agerian geratu zen enpresak beragan duen konfiantza, “Bilboko Aste Nagusia” torneoa jokatzeko aukera eman baitzioten. Eta konfiantza horri, primerako maila emanez, eta pilotari gorenekin lehiatzera heldu daitekeela erakutsiz erantzun zion. 22-15 irabazi zuten finala Danelek eta uda honetako atzelaririk onena izaten ari den Zabaletak, Olaizola II.ak eta Untoriak osatutako punta-puntako bikotearen aurka.

Elezkanok definitu zuen bezala, bere “bizitzako partidurik garrantzitsuenak”, bere aitari eskaini nahi izan zion modu hunkigarrian, eta ez da gutxiagorako. Pilotazaleok faltan botatzen dugu Jokin Elezkanoren pilotalekuekin, baina badakigu harro egongo dela. Eta oraindik, harro egoteko motibo ugari izango ditu aurrerantz. Danelen aldeetik eguneroko lana eta ilusioa baieztauta daude.

## Espainiako Itzulia eskualdetik igaroko da gaur

**> TXIRRINDULARITZA** J.D. Espainiako Itzuliko etaparik luzeena (213 km) Durangaldeko hainbat herritatik igaroko da gaur. Bilbo eta Urdax-Dantxarinea (Nafarroa) lotuko dituen etapako hasierako kilometroetan Zornotza, Iurreta, Berriz eta Zaldibar igaroko dituzte N-634 errepidetik. Iurretatik 12:35 inguruan igaroko dira antolakuntzaren kalkuluen arabera. Gaurko etapan zehar hirugarren mailako lau mendate igoko dituzte: Igeldo, Aritxulegi, Agiña eta Lizaieta.

## Iñakiren bideetan ibiliko dira asteburuan

Bederatzi etapatan 422 kilometro osatuko dituzte

**> BIZIKLETA** J.D. Iñaki Lejarreta oroitzen du Iñakiren Bideak ekimenaren laugarren aldia egingo dute zapatuan eta domekan. Bederatzi etapatan banatuta, 422 kilometroko bidea osatuko dute bizikletan.

Etapako bakoitzak bere arduradunak izango ditu, eta erreleboak arituko dira. Antolatzailuek gogoratu dute ez dela martxa arautu bat. Beraz, ez dago ize-na eman beharrik, eta edonork parte hartu dezake gura duen

kilometro kopurua osatuz. Zapatuan goizaldean irtengo dira Berrizko Elizondo plazatik, 04:00etan. Etapa bakoitzak 35 eta 50 kilometro artean ditu. Zarautz, Doneztebe, Oiartzun eta Zarautzetik ibiliko dira, besteak beste. Domekan, 16:00 inguruan amaituko dute ibilbidea, Berrizko Berrizburun.

Etapako bakoitzaren gaineko xehetasun zehatzak [www.inakirenbideak.com](http://www.inakirenbideak.com) webgunean jaso daitezke.

## Bilbao Basketek Zornotzan jokatu du gaur

**> SASKIBALOIA** J.D. Zornotza Saskibaloi Taldeak eta ACB ligako Dominion Bilbao Basketek lagunarteko partidua jokatu du gaur, 19:30ean, Larreako kantxan. Zornotzaren aurtengo fitxaketan errendimendua bertatik bertara jarraitzeko aukera eskainiko du partidua. Azken fitxaketa asteon jakinarazi dute: Nouhoum Bocoum 2.07 metroko pibota (Ameriketako Estatu Batuak, New York, 1985). Arkansas State unibertsitateko taldetik dator.

MATERIAL DE CONSTRUCCIÓN  
**MACOBER**

Eraikuntzarako materiala  
**MACOBER**

Zeramika eta gresa

Eitua Industriagunea, 66 BERRIZ  
Tel.: 946 827 890 [macober@movistar.es](mailto:macober@movistar.es)

**hitz**  
liburudenda

artekalea, 23 durango  
946 810 776  
[info@hitzliburudenda.com](mailto:info@hitzliburudenda.com)

**HITZ lekuz aldatu da!**  
Orain Artekaleko 23. zenbakian gagoz, lehengotik 20 metrora. Etorri bisitan!



# EDERTASUN GIDA



**Ana Camarero.**

## Azala hidratatzeko tratamendua, %50 merkeago irailean

Ana Camareroen estetika zentroan uda ostean azala hidratatzeko tratamendu bat eskaintzen dute, eta deskontu berezia daukate.

### Udako oporrak pasatu dira gehienentzat. Azala zaindu behar al dugu?

Bai. Seguru gehienok eguzkipean disfrutatu dugula, baina azalak ere eguzkiaren eragina sufritu du. Azala hidratatzea beharrezkoa da, aurpegian zimurrak agertzerik gura ez badugu.

### Zer gertatzen da hidratazio maila egokia mantentzen ez badugu?

Azalak indarra edo distira galtzen duela. Behar baino lehenago zahartzen da, eta zimurrak agertzen dira, besteak beste. Horri aurre egiteko, azido hialuronikoan oinarritzen den hidratazio tratamendu sakon bat eskaintzen dugu gure zentroan. Gure azala gazte eta hidratatuta mantentzeko tratamendu onenetako bat da. Gainera, irailean %50eko deskontua edukiko dugu.



## ILE-APAINDEGIAK



## ESTETIKA ZENTROAK

**Ana Camarero**  
Edertasunerako tratamenduak eta aholkularitza

irailaren  
2tik 30era  
**27,50€**

---

**%50eko deskontua**  
Hidratazio sakon bidezko  
aurpegi-tratamenduan:

**PEELING-A, ANPOILA HIDRATATZAILEA,  
MASAJE ERLAXATZAILEA ETA MASKARA**

Goienkalea, 16-1. esk. • 48200 Durango  
Tel.: 946 817 380 • Mug.: 639 375 474

R.P.S.: 36/16



**Profesionalik onenak zure zerbitzura!**



## > Inmobiliariak



### ETXEBITZAK ALOKAIUAN

**DURANGO.** Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 550€-tik hasita.

### ETXEBITZAK SALGAI

**DURANGO.** Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

**DURANGO.** Errotarixuena Atiko zoragarria. 3 logela, bi komun, bi terraza zabal, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, eta garaje itxia lau kotxe sartzeko. Ikusgarria.

**DURANGO.** Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela, balkoiarekin eta despentsa.

**ATXONDO.** 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

**ELORRIO.** 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea balkoiarekin, komuna, eta garajea itxia.

**DURANGO.** -Kalebarria, 3 logelako etxebizitza, sukaldea, egongela, eta komuna. 120.000€.

**DURANGO.** ARTEKALE. Azken etxebizitza, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 165.000€-tik hasita.

**LEKEITIO.** 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

**ABADIÑO.** Aita Letona. Etxebizitza ederra 2 logelarekin, komuna, sukaldea, egongela, garajea eta trastelekua.

**ABADIÑO.** Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

**DURANGO.** ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

**ATXONDO.** Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

**ZALDIBAR.** Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

### LURSAILAK SALGAI

**ABADIÑO.** 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeke baimearekin. Zonalde egokia.

**BERRIZ.** 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

**IURRETA.** 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

**ABADIÑO.** Bifamiliarra eraikitzeke lursaila, 1.000 m2. Informazio pertsonalizatua.

**AMOREBIETA. EUBA.** Txalet bifamiliarr bat eraikitzeke lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.

**AMOREBIETA. LARREA.** 27.000 m2-ko lursail ederra, dena partzela bakarrean.

### BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

**ABADIÑO. GAZTELUA.** Baserri ikusgarria, arku eder batekin sarreran, ekialdera begira, 20.000 m2-ko lursaila baserriaren ondoan.

**BERRIZ.** Txaleta 1.200 m2-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

**ATXONDO.** Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

**BERRIZ.** Bº Murgoitio. Bifamiliarr ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

**MENDATA.** Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berriztatzeke. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**DURANGO.** Eraikin atxiki ederra, izkina, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatzeke.

**BERRIZ.** Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobek.



### ETXEBITZAK SALGAI

#### ASKATASUN ETORBIDEA



- 3 logela, egongela, sukaldea jarrita esekitoki eta guzti, despentsa, 2 komun, 2 balkoi, ganbara eta garajea. Bigarren garaje lekua aukeran. **259.000€.** €

#### MARTXOAREN 8 KO



- Oso egoera onean dagoen etxebizitza. 3 logela, egongela sukalde eta guzti, esekitokia, 2 komun, bata leihoarekin. Ganbara eta garajea. **250.000€.**

#### ASKATASUN ETORBIDEA



- 2 logela, egongela, sukaldea jarrita, komuna eta balkoia. Guztia berriztatua. Igogailuarekin. **210.000€.** €€

#### MUSIKO ALTUNA



- Etxebizitza guztiz berriztatua. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 komun, ganbara eta garajea. Guztiz isolatua. Kontsultategia izateko prestatua dago. **206.000€.** €

#### FRAY JUAN DE ZUMARRAGA



- 118m2 gehi terraza. Ataria. Sukalde-jangela, 4 logela, egongela, 2 komun, terraza handia. **195.000€.** €€

#### PINONDO



- 67 m2 erabilgarri. Ikuspegi zoragarriak. Etxe guztia kanpora begira. Balkoia itxia. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, komun bat. Berogailuarekin. Igogailuarekin. Bizitzaren sartzeko moduan. **LEHEN 195.000€ / ORAIN 175.000€.**

[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)



### ETXEBITZAK SALGAI

#### OLLERIA



- 100m2. 3 logela. 2 komun. Sukaldea. Esekitokia. Egongela. Ganbara eta garajea. **265.000€.**

#### TRONPERRI



- 4 logela. 2 komun. Egongela. Sukaldea. Ganbara eta garajea. Txoko komunitarioa eta solariuma. **243.900€.**

#### TABIRA



- 75 m2. 2 Logela. Komuna. Sukaldea eta egongela. **125.000€.** €Negoziazarria.

#### M. TORRE



- 134m2. 4 logela. 2 komun. Sukalde-jangela. Egongela terrazarekin. Trastelekua eta 2 garaje leku. **270.000€.**

#### IURRETA



- 87m2. 3 logela. Komuna. Sukaldea eta egongela. Berogailua. Igogailua. **115.000€.**

#### MATIENA



- 4 logela. Komuna. Sukaldea. Despentsa. Egongela terrazarekin. Garajea aukeran. **ORAIN 145.000€.**

**LOKALAK ETA ETXEBITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.**  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)

**ALOKAIUAN  
ETA SALGAI DITUZUN  
HIGIEZINEN BERRI  
EMAN NAHI  
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau  
eskaintzen dizu**

**Informazio gehiagorako:**  
Tel.: 946 217 902  
[publi@anboto.org](mailto:publi@anboto.org)



# anboto.iragarki**labur**rak.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEGOZIOAK	7 AISIA/KIROLA
4 DEHETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

**Interneten eta paperean, doan:** Partikularrentzat - Erregistratu [www.anboto.iragarkiaburak.com](http://www.anboto.iragarkiaburak.com) webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org).

**Paperean, ordainduta:** Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonon.

### Higiezinak

#### ETXEBIZITZAK

##### SALDU

**Durango.** Babes ofizialeko etxebizitza baten eskualdatzea eskaintzen da (kooperatiba erregimenean) Durangon. 60,33m<sup>2</sup> erabilgarri, 2 logela, 2 komun, garajea (26,49m<sup>2</sup>) eta trastelekua (5,07m<sup>2</sup>). Etxebizitzaren prezio osoa 145.537,14 euro bez barne. Tel.: 659-96 34 29.

**Mallabia.** Aukerakoa, nekazaritzarako edo nekazaritza-turismorako, toki eguzkitsua eta ederrean, 20.000 m<sup>2</sup> lursail. Prezio egokia, ikusi nahi baduzu, deitu. Tel.: 655-70 26 47 (19:00-21:00).

##### ERRENTAN EMAN

**Zaldibar.** Apartamentu bat alokatzen da Zaldibarren, bikote batentzako aproposa. Tel.: 664-10 27 91.

##### ERRENTAN HARTU

**Iurreta.** Iurretan pisua alokatu gura dut, kaskoan. Urrian edo azaroan sartzeko. Tel.: 660-13 95 54.

#### PISUA KONPARTITU

##### PISUKIDE BILA

**Durango.** Aldi baterako logela alokatzen dugu Durangon. Hiru logelako etxebizitza da, eta altzari guztiak ditu. Etxeko giroa lasaia eta atsegina da. Tel.: 695-75 23 43.

#### GARAJE / TRASTEROAK

##### ERRENTAN EMAN

**Berriz.** Berrizen garajea alokatzen da geltoki ondoan. Tel.: 671-09 85 40.

**Durango.** Durangon garaje trasteleku eta guzti alokatzen dut. Euskaltel denda ondoan. Tel.: 676-97 95 77.

Posta: Bakarloi@hotmail.com.

**Durango erdian garajea errentan eman.** Plateruen plaza azpian garajea errentan ematen da. Sarrera Arkotxa kaletik eta Oiz kaletik. Tel.: 658-71 83 43.

##### ERRENTAN HARTU

**Durangaldea.** Durangaldean ortua jartzeko eta animaliak izateko lursail baten bila nabil. Ibilgailuarekin sartzeko leku egokia. Tel.: 622-47 33 65.

### Teknologia

#### GAINERAKOAK

##### EMAN

**Bidali zure ordenagailua.** Zure ordenagailua hondatuta badago, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, jaso, konpondu, eta Federación Niños del Mundo elkartearen bitartez bidaliko dugu Boliviako eta Peruko ospitaleetara eta eskoletara. Tel.: 655-71 76 66.

### Lana - negozioak

#### LAN ESKARIAK

##### PERTSONAK ZAINDU

**Durangaldea (Bizkaia).** Esperientziadun emakumea prest dago lanaldi osoan edo lanaldi erdian pertsona nagusiak zaintzeko. Garbiketan ere jarduten dut. Tel.: 670-67 46 41.

**Durangaldea.** Erreferentzia onak dituen emakumea prest dago pertsona nagusiak zaintzeko. Orduka izan daiteke, edo gauez. Tel.: 631-49 78 01.

**Durangaldea.** Garbiketan lan egin nahi dut, eta nagusiak zaintzen ere lan egiteko prest nago. Tel.: 688-82 42 47.

**Durangaldea.** Emakume arduratsua lan bila dabil, barneko langile bezala, nagusien eta

umeen zaintzan. Esperientziarekin. Tel.: 632-79 06 93.

**Durangaldea.** Emakume arduratsua, erizaintza ikasketekin, lan bila dabil, gauetan eta asteburuetan nagusien zaintzan. Esperientziagaz. Tel.: 612-21 26 54.

**Durangaldea.** Lan bila pertsona nagusiak zaintzeko edo tabernak garbitzeko, egunez edo gauez. Erreferentzia onekin. Tel.: 602-80 83 85.

**Durangaldea.** Emakume arduratsua prest dago etxeko lanak egiteko, barneko zein kanpoko langile moduan. Orduka ere bai. Baserrietara joateko prest. Tel.: 631-68 66 48.

**Durangaldea.** Emakume arduratsua lan bila nagusiak edo umeak zaintzen. Tel.: 631-45 60 99.

**Durangaldea.** Emakumea prest dago pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketan jarduteko. Arrandegian esperientzia. Tel.: 632-36 88 74.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. Barneko langile moduan. Astelehenetik barikura. Tel.: 632-70 81 59.

**Durangaldea.** Lan bila pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 675-49 76 66.

**Durangaldea.** Emakume arduratsua, esperientziagaz, erreferentzia onak, paperekin, lan bila pertsona nagusiak zaintzen. Barneko edo kanpoko langilea. Tel.: 602-14 17 12.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut.

Barneko langilea. Astelehenetik barikura. Tel.: 632-70 81 59.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Tituluduna. Esperientziagaz. Tel.: 652-23 82 60.

**Durangaldea.** Lan bila etxeko lanetan: nagusiak zaintzen, umeak zaintzen, garbiketan. Tel.: 612-42 50 97.

**Durangaldea.** Neska arduratsua lan bila dabil kanpoko edo barruko langile moduan pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Tel.: 612-51 55 61.

**Durangaldea.** Etxeko garbiketa eta pertsona nagusien zaintzarako, Durangaldean. Tel.: 632-83 38 75.

##### IRAKASKUNTZA

**Durangaldea.** Neska euskalduna, administrazio ikasketak eta esperientzia duena, Lehen Hezkuntza eta DBH partikularrak banaka zein talde txikietan emateko prest. Tel.: 662-36 41 67 - 946-81 39 40.

##### GAINERAKOAK

**Durangaldea.** Gizon arduratsua esperientziagaz, baserri edo tailerretan edozein lan egiteko prest nago. Tel.: 660-91 85 49.

#### LAN ESKAINTZAK

##### OSTALARITZA

**Abadiño.** Abarketeruena tabernak sukaldaria behar du. Lanaldi osorako. Gutxienez bi urteko esperientzia izatea baloratuko da. Deitu 660-18 74 05 zerbakira edo bidali curriculuma abarketeruena@gmail.com helbidera.

##### ETXEO LANAK

**Iurreta.** Iurretan emakume euskalduna eta kotxeduna behar da goizetan adineko bikote

baten etxeko egunerokoa eramateko. Tel.: 660-20 18 30.

##### PERTSONAK ZAINDU

**Elorrio.** Haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume bat behar da. Interesa badaukazu, deitu. Tel.: 652-70 55 91.

##### IRAKASKUNTZA

**Durangaldea.** Ingeles irakaslea behar da Durangaldean klaseak emateko. Bete behar diren baldintzak: c2 maila gehi business. Harremanetan jartzeko bidali zure cv helbide honetara: [cvdurangaldea@gmail.com](mailto:cvdurangaldea@gmail.com)

### Denetarik

#### SALDU / EROSI

**1 eta 2 batxilergoko liburuak.** 1 eta 2. Batxilergoko ondo zaindutako bigarren eskuko liburuak saltzen ditut. Historia, filosofia, mundu garaikideko zientziak, euskara, geografia, filosofia, Platon, Agustin Hiponakoa, Wittgenstein... eta literatura unibertsala. Tel.: 688 639 547 zenbakira. Liburu argazkiak bidali ditzaket.

### Familia - etxea

#### GAINERAKOAK

##### EMAN

**Arraza txikiko txakurkumeak oparitzen dira.** Arraza txikiko txakurkumeak oparitzen dira. Tel.: 692-36 69 55.

**Katakumeak erregalitzen dira.** Katakumeak erregalitzen dira. Tel.: 626-28 65 23

**Katakumeak oparitzen dira.** Katakumeak oparitzen dira. Tel.: 643-68 15 09.

## 5 KATEGORIA SARITUKO DIRA:

- ESKUALDEKO argazkirik onena.
- Durangaldetik KANPOKO argazkirik onena.
- "SELFIE"-rik onena.
- Argazkirik FRESKOENA.
- Argazkirik UMORETSUENA.

Informazio gehiago [www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean

## IRABAZI ASTEBURU PASA ZORAGARRIA



## UDA KO 2. ARGAZKI LEHIAKETA

anboto   
komunikabideak



# AGENDA

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguzten eguerdia baino lehen.



Irailaren 4an, 18:30ean,  
Eubako jaietan

## Turukutupa

Zornotzako Euba auzoko jaietan arituko da domeka arratsaldean Rezikletas Turukutupa taldea. 18:30ean hasiko da perkusioa eta antzerkia uztartzen dituen ikuskizun horren emanaldia.



## Jaiak

**:: ABADIÑO (Muntsaratz)**

IRAILAREN 2an

**19:00etan**, Donien Atxa ipintzea.

**19:15ean**, umeen dantzak.

**20:00etan**, paella eta tortilla lehiaketarako inskripzioa.

**20:30ean**, parrillada.

**21:00etan**, Danni Meip DJa.

**23:00etan**, Aitor Bugallo eta Jon Peli 'Txupa'-ren omenezko kontzertua: The Artichokes, Crap eta Txapito Guzman eta Ibarrako Langostinuek.

IRAILAREN 3an

**11:00etan**, buruhandiak.

**11:45ean**, mozerro lehiaketaren hasiera eta argazkia.

**12:00etan**, umeentzako puzgarriak.

**14:00etan**, paellen aurkezpena.

**16:15ean**, mus eta tute txapelketak.

**18:30ean**, igel-toka lehiaketa.

**20:45ean**, tortillen aurkezpena.

**22:00etan**, disko dantza.

IRAILAREN 4an

**11:00etan**, Zelai-Alai hipikako poniak.

**11:30ean**, buruhandiak.

**12:00etan**, xakeko aldi bereko partidak.

**13:30ean**, Tor magoa, aterpean.

**14:30ean**, herri bazkaria.

**16:30ean**, igel-toka lehiaketa.

**17:15ean**, disko txiki.

**19:00etan**, txokolatada.

IRAILAREN 10ean

**10:00etan**, umeen futbito txapelketa (13 urte arte)

IRAILAREN 11n

Duatloi txikia.

**:: ZORNOTZA (Euba)**

IRAILAREN 2an

**16:30ean**, ume, gazte eta helduentzako egurrezko jolas tradizionalak.

IRAILAREN 3an

**13:00etan**, umeentzako bazkaria.

**15:00etan**, helduentzako bazkaria.

**22:00etan**, Xaibor DJa.

IRAILAREN 4an

**12:00etan**, meza.

**18:30ean**, lurretako dantzarien saioa. Ondoren, Zornotzako bertsolari eskolako emanaldia. Azkenik, kale antzerkia Rezikletas Turukutupa taldeagaz.

IRAILAREN 5ean

**12:00etan**, auzoko hildakoen aldeko meza, eta ondoren luntxa.

**16:00etan**, hirukoteen arteko briska txapelketa.



## Tailerra

**:: DURANGO**

IRAILAREN 18an

**10:00-14:00**, bizikletaren inguruko ikastaro intentsiboa, Ingurumen Astearren barruan, Ezkurdi plazan. Durangoko Udaleko bulego teknikoan eman behar da izena.



## Lehiaketa

**:: ELORRIO**

URRIAREN 31ra arte

'Elorrioko aztarnak' lehiaketa: Elorrioko oroigarri edo souvenir-a aukeratzeko lehiaketa. Lanak udalaren Herritarren Arretarako Zerbitzuan aurkeztu behar dira.



## Antzerkia

**:: DURANGO**

IRAILAREN 17an

**20:00etan**, 'Frida Khalo, viva la vida', San Agustinen.

**:: ELORRIO**

IRAILAREN 10ean

**21:00etan**, Kabaret ikuskizuna, Arriolan.



## Musika

**:: DURANGO**

IRAILAREN 10ean

**20:30ean**, Durango Reggae jaialdia, Plateruenean.



## Bisita gidatua

**:: BERRIZ**

IRAILAREN 3an

**10:00etan (euskaraz) eta 12:00etan (gaztelaniaz)**, Legañoako arkeologia lanetara bisita gidatua.




## Erakusketa

**:: DURANGO**

IRAILAREN 2tik aurrera

**Errotari, perretxiko eta argazkigintza** erakusketa, Arte eta Historia Museoa.



**:: DURANGO | ZUGAZA**

## Cuerpo de elite

- **barikua 2:** 19:30/22:00
- **zapateria 3:** 17:00/19:30/22:30
- **domeka 4:** 16:30/19:00/21:30
- **astelehena 5:** 18:30/21:00
- **martitzena 6:** 20:00

## Los visitantes la lian

- **barikua 2:** 19:30/22:00
- **zapateria 3:** 19:30/22:30
- **domeka 4:** 19:00/21:30
- **astelehena 5:** 18:30/21:00
- **martitzena 6:** 20:00

## Siete vidas. Este gato es un peligro

- **barikua 2:** 19:30/22:00
- **zapateria 3:** 17:00/19:30/22:30
- **domeka 4:** 16:30/19:00/21:30
- **astelehena 5:** 18:30/20:00
- **martitzena 6:** 20:00

## Peter y el dragon

- **zapateria 3:** 17:00
- **domeka 4:** 16:30

**:: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA**

## Ben-Hur

- **barikua 2:** 20:15
- **zapateria 3:** 19:30/22:00
- **domeka 4:** 20:00
- **astelehena 5:** 20:15

Irailaren 2an, 21:00etan, Muntsaratz

## Danni Meip DJaren saioa

Danni Meip DJ abadiñarrarena izango da Muntsaratz auzoko jaien lehenengo eguna girotuko duen lehenengo musika saioa. Gaur, 21:00etatik aurrera arituko da bere emanaldia eskaintzen Danni Meip izenagaz diharduen Dani Pintado gazte abadiñarra. DJaren saio horren ostean, 23:00etan hasiko da Aitor Bugallo eta Jon Peli Larruskain 'Txupa' abadiñarren omenez antolatatu duten kontzertua. The Artichokes, Crap eta Txapito Guzman eta Ibarrako Langostinuek taldeek joko dute.





**> BOTIKAK****BARIKUA, 2**  
09:00-09:00**Sagastizabal**  
Askatasun etorb. 19 - Durango

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

**Aramburu, Maria**  
**Isabel-Guarrotxena, Javier**  
Txiki Otaegi 3 - Zornotza**ZAPATUA, 3**  
09:00-09:00**Etxebarria**  
Montevideo etorb. 2 - Durango

09:00-13:30

**Navarro**  
Artekalea 6 - Durango**Sagastizabal**  
Askatasun etorb. 19 - Durango**Balenciaga**  
Ezkurdi plaza 8 - Durango**Bazan Diaz**  
Uribarri 5 - Durango**Campillo**  
Montevideo etorb. 24 - Durango**Unamunzaga**  
Muruetatorre 2C - Durango**De Diego**  
Intxaurren 22. - Durango**Bartolome**  
Gabiola 2 - Berriz**Jaio-Olabarrieta**  
Errekakale 6 - Elorrio**Eguren, Isabel**  
Trañabarren 15 - Abadiño**Guarrochena, Lide**  
Bide Zahar 14 - Zornotza**Melero, Rosa Mari**  
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-14:00

**Irigoien**  
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

**Aramburu, Maria**  
**Isabel-Guarrotxena, Javier**  
Txiki Otaegi 3 - Zornotza**DOMEKA, 4**  
09:00-09:00**Navarro**  
Artekalea 6 - Durango

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

**Aramburu, Maria**  
**Isabel-Guarrotxena, Javier**  
Txiki Otaegi 3 - Zornotza**ASTELEHENA, 5**  
09:00-09:00**Mugica**  
Andra Maria 9 - Durango**Guarrochena, Lide**  
Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza**MARTITZENA, 6**  
09:00-09:00**Balenciaga**  
Ezkurdi plaza 8 - Durango**Guarrochena, Lide**  
Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza**EGUAZTENA, 7**  
09:00-09:00**Campillo**  
Montevideo etorb. 24 - Durango**Guarrochena, Lide**  
Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza**EGUENA, 8**  
09:00-09:00**De Diego**  
Intxaurren 22. - Durango**Guarrochena, Lide**  
Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza**> ZORION AGURRAK**✉ [zorionak@anboto.org](mailto:zorionak@anboto.org)  
eguzieneko 14:00ak arteko epeaErmodo, 11 · DURANGO - Tel.: 946 201 663  
[gozatudurango@gmail.com](mailto:gozatudurango@gmail.com)

f Gozatu Gozategia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta batzotz egingo dugu.  
Zozketan parte hartzeko bidali kontakturakodatuak zorion agurrarekin batera.**> Etxeko sorgintzuak**  
lau urtetxo bete dauz.  
Patxo potolo mordo pillla!**> Oromiñoko Natali**  
**Cebrianek** 3 urte bete ditu  
abuztuaren 30ean.  
Zorionak printzesa!  
Etxeko danen partez**> Abuztuaren 23an** bete  
zituen urteak **Ibon**  
**Lizundiak**. Zorionak Inhar,  
Eider eta Rakelen partez,  
eta musu handi bat!**> Abuztuaren 13an**  
urrezko ezteiak ospatu  
zituzten familia  
guztiagaz.**> Zorionak, Sugar!** Ondo  
pasau zure egunien eta  
mosu potolo bat  
familixien partez. Maite  
zaitugu!**> Abuztuaren 10ean**  
**Danielak** 3 urte bete  
zituen. Zorionak eta  
muhu potolo bat Ane,  
Aiala eta familia  
guztiaren partez.**> Nilek** uztaillaren 29an  
urtetxo bat egin zuen!  
Zorionak txikitxu Peru  
eta etxeko danen partez!**> Martinek**, gure  
txapelkunak, abuztuaren  
21ean 10 urte bete zituen.  
Muhu potolo bat etxekuen  
partez.**> Zorionak, Etxahun!**  
Dagoeneko etxeko txikiak  
5 urte bete ditu. Mosu  
handi bat etxekoan  
partez!**> Abuztuaren 31n** 6 urte  
bete zituen **Eiderrek**, gure  
etxeko printzesak.  
Zorionak eta musu handi  
bat Inhar, aita eta amaren  
partez.**> Zorionak** Mañariko jai batzordeari egindako  
lanagatik. Aurten jai politak eta adin guztietarako izan  
doguz.

**CRIS**  
ACADEMIA

**CAMBRIDGE ENGLISH**  
Language Assessment  
Authorised Centre

**2016-2017**  
**IKASTURTE**  
**BERRIA**

- 2016-2017 ikasturteko matrikula dohainik.
- Irailaren 8an 16:00etan emango dira ikasturteko ordutegiak.
- Cambridgeko azterketa ofizialak prestatzen lagunduko dizugu; Durangaldeko zentro ofiziala gara.
- Ingeles maila guztiak haurrentzako eta helduentzako.
- KET, PET, FIRST eta ADVANCE.
- Ordutegi aukera zabala: goizean, eguerdian eta arratsaldean.

Musiko Altuna, 11 behea  
48200 Durango  
Tel.: 606 368 929

**anboto.org**  
**MUGIKORREAN**

**Albisteak eta agenda,**  
bizkor eta eskura.

**Telefono gida** osatuena:  
zuzenean deitzeko aukera.

**Parte hartu,** galderak eginez,  
erantzunak lortuz.

**Pertsonalizatu,** zure herria aukeratzuz.

**DESKARGATU**  
**DOAN!**



# “Itsaso guztietan daude olatuak; hori bai, Indonesiakoaren modukorik ez dago hemen”

Free-surfa egiten du Mundakara begira bizi den durangarrak, eta surfa bizitzeko modu bat dela dio

**> AKUILUA** Aitziber Basauri Antzoran (Ibarrangeluan), aitita-amamen karabanen pasatu du udara txikitatik Jokin Etxebarriak. Bost urtegeaz hasi zen surfean, eta hantxe bizi da gaur egun. Ogoñope surf eskolako arduraduna da, eta bisitan etortzen da Durangora. AEBetako Vissla surf markaren taldean ari da.

## Free-surflaria zara zu...

Surf profesionaletik, txapelketetatik kanpo ari gara gu. Munduan barrena bidaiatuz, olatuak hartuz... Eguneroko surfa da gurea, eta momentuko baldintzen arabera surferako ohol bat edo bestea erabiltzen dugu. Surf-ohol desberdinak ditugu. Vissla sostengu itzela da; material arloan laguntzen didate.

## Zenbat surf-ohol dituzu ba?

Bospasei ditut neu eginak, eta ekarritakoak beste hainbat. 20 bat izango ditut, tabloideak, ohol asimetrikoak, gila bakarrekoak, bikoak, gila gabeak...

## Zuk eginak dituzu...

Free-surferako ez dago laguntza askorik, eta foam batzuk erosita tailer klandestino bat sortu genuen lagun talde batek. Esperimentatu nahi nuen eta asmatu nuen. Itsasoan ezin hobeto pasatzen nuen surf-ohola egin nuen. Surferako aukera asko ireki zitzaizkidan orduan.

## Kalifornian ere ibilia zara.

Bai. Lagun mina dudana Ryan Burch munduko shaper eta surflari ezaguna bisitatzeraz joan nintzen —han sortu zen Visslagar harremana—. Aurretik

Indonesian ibili nintzen, neuk egindako oholekin. Esperimentatzeko bidaia itzela izan zen.

## Baduzu erreferenterik?

Kelly Slater, Andy edo Bruce Irons.... beti izan ditut erreferente. Baina, gero, denetarako inspirazio dudana surflari bat aurkitu nuen: Ryan Burch. Bere surf-oholak probatu ditut, eta izugarria da bere surfa.

## Badago surfa egiteko hobea den itsasorik?

Kalifornian eta Indonesian ez eze, Kanariar Irlan edo Irlandan ere ibilia naiz; Bartzelonan ere hartu ditut olatuak. Itsaso guztietan daude olatuak, baina batzuetan baldintzak hobeak dira. Hori bai, Indonesiako olatuaren modukorik ez dago hemen. Paradisua da; perfektua, magia. Han olatu guztiak dira Mundakakoaren pareko.

## Zer du, ba, Mundakakoak?

Mundu mailako olatua da, itzelezko ezkerria, hodiarekin, eta behean harea dago. Hori du berezia. Egon badaude halako olatuak, baina hondoan arrezifea dute, harria, eta askoz arriskuetsuagoa da. Errekara ere badu irteera. Baina jendetza egoten da. Ez naiz asko joaten. Mundu osotik datoz. Borroka itzela dago olatuak hartzeko: egon dira ehundik gora lagun uretan.

## Zein olatu hartu gura duzu?

Mozambiketan dut olatu bat begiz jota; Alaskara, Islandiara edo Kanadara ere joan gura nuke. Baina, sostengu ekonomikorik gabe oso zaila da proiektuak gauzatzea.

## Udaro daude liskarrak surflari eta bainularien artean...

Gero eta gehiago. Surfa gorantz doa, eta hondartzetan surflari, surf eskola, jende... larregi dago. Elkarbiziz eta

errespetuz jokatu behar dugu, eta hori transmititzen dugu surf-eskolan ere. Hala ere, bada denok zaku berean sartzeko joera bat. Dena den, surflariok urte osoan egiten dugu surfa. Hondartzak lasai daudenean.

**Surfari lotuta badago halako irudi bat...Ile kolorea zurea da? Bai! (barrez). Irudi batez lotu arren, bizitzeko era bat da surfa.**



## LAUHORTZA

**JASONE AGIRRE GARITAONANDIA**

Kazetaria



## Gero arte

Parkatidazue gaurko hau notifikazio modura-edo idaztearren. Poesia gutxi. Idatzi ditudan guztietatik tristeena da, zentzu bietan. Tristeia forma aldetik eta tristeia edukiagatik, hau azkena da-eta, zati batean behintzat. Nire bizitzan aldaketa handi-handi bat eduki dut. Gasteizko Legebiltzarrerako hautagai naiz, EH Bilduko Bizkaiko zerrendaburua, eta beraz, hemendik aurrera ezin izango dizuet ku-kurik egin bazter honetatik. Ez litzateke dotorea izango, ezta zintzoa ere.

Gustura ibili naiz azken urteotan zuoi hemendik berba egiten. Eskertu izan dut bene-benetan neure idatziren bat gustatu zaiuela esan didazuen bakoitzean, baita zeozerekin ez zaudetela konforme esatean ere, irakurri izan dizuen seinalea da-eta; horixe izan baitut helburu bakarra, zuok euskaraz irakurtzea eta, ahal bada, apur bat entretenitzea.

Harro sentitu izan naiz urte hauetan, eta hori oso sentimendu polita da. Ez da behar beste ordainik.

Harro sentitu izan naiz Anbotoren zuzendaritzaren parte izanda ere. Komunikabide dotorea da, kalitatezkoa, berdintasunzalea, eta gainera, euskeraz. Talde miresgarri batek egiten du mirari hori eguneroko-eguneroko gogorlan eginda. Konpromisoa zer den jakin gura baduzue egin buelta txo bat Anbototik. Ondo hartuko zaituztete gainera, neu ere halan hartu ninduten.

Askok ikasi dut urteotan, gozatu ere bai, eta orain, gero arte esan behar. Pena. Kanpoan nagoen artean, mesedez, zaindu hainbeste maite dudana Anboto, eta batez ere baztertxo hau.

Ondo ibili, eta mosu bana dano!

**ALBERDI HARATEGIA**

ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658 · SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722